



HILEKO ZOZKETAK / 10

Elorrio 800 ziklo-kroslariren topaleku izango da

Ziklo-kros txapelketaren 48. edizioa jokatu da. Zapatuan umeez parte hartuko dute; domekan, nagusiek. Ekitaldian Basilio Azkarate oroitu da / 21

Garitagoitia eta Udabe, Urriko Jaietarako prest / 8



'Xerka': Joseba Olagaraik eta Martxel Larrazak sexilioari buruz berba egingo dute Abadiñon / 2-3

Errigoraren udazkeneko kanpaina martxan, Nafarroa erdi eta hegoaldean euskara bultzatzeko / 12



DOMUSANTU GEHIGARRIA / 13

DURANGALDEKO KOPAKO AZKEN HELMUGA

Zapatuan Aldapegora mendi lasterketa jokatu da Elorrian, eta horregaz, zortzi lasterketak amaituta, aurtengo Durangoko Kopa helmugara ailegatuko da. 500 korrikalarik baino gehiagok parte hartuko dute azken txanpan / 20



Korrikalariak, iaz, Aldapegorako helmugara ailegatzeko.

LUCIA MERUELO

Ekaitz Herrera SEXERBESTEA

LGBT herritarren migrazio behartua da sexilioa edo sexerbestea. Hau da, etxean edo herrian orientazioagaz edo identitateagaz zapalkuntzaren bat jasan edo askatu ezin, eta landa eremutik hirigunera alde egitera behartuta sentitzen diren herritarren migrazioa. Martxel Larraza eta Joseba Olagarai etxalartarrek izen-abizenak eta aurpegiak ipini dizkiete desplazatze horiei Xerka proiektuaren bidez. Euskal Herriko bost LGBT herritarren testigantzak batu eta sexilioaren kontakizuna josi dute. Adar biko proiektua da esku artean dutena: batetik, sexilioari buruzko berbaldiak ematen dituzte; bestetik, bost euskal herritar horien argazki eta bizipenak plazaratzen dituzte erakusketa batez. Urriaren 30ean, eguenean, Abadiñoko Errota kultur etxean emango dute berbaldia. 19:00etan izango da. Amagoia Villanueva abadiñarrak ere bertan parte hartuko du. Argazkiak azaroaren 6ra arte egongo dira Errotan.

Sexilioak badu definizio jakinik?

Martxel Larraza: Sexilioa euren familia eta gizarte inguruetik normalean hiriguneetara ihes egin behar izaten duten LGBT pertsonen migrazio behartua da, genero-identitatea edo sexu orientazioa dela-eta jasan-dako zapalkuntzagatik egiten dutena. Jakina, inork ez ditu bortxaz botatzen, baina herri txikietan badaude haurtzaroko edo nerabezaroko faktoreak horretan eragiten dutenak. Erreferente falta izan daiteke arrazoietakoa bat, edo ingurunean sozializatzeko edo komunitate txiki bat sortzeko aukera mugatuak egotea beste bat. Halako kasuetan, sexilioa ihesbide bihurtzen da.

Horrek esan gura du hiria eta landa eremua desberdinak direla LGBT herritar batentzat?

M.L.: Alde batetik, bai, herria eta hiria desberdinak dira. Adibidez, landa eremuan bertako erreferenteak bilatzea zailagoa izan daiteke hirietan baino. Era berean, hiriak anonimotasuna eskaini diezazuke askapenerako, baina zailagoa ere izan daiteke komunitate bat sortzeko. Gainera, herrietan hirietan baino errotuago daude tradizio eta nortasun ohiturak, eta ezaugarri horiek mugatzaileak izan daitezke. Batzuetan, jendea ez

"Sexilioa beti egon da eta oraindik ere badago"

JOSEBA OLAGARAI ETA MARTXEL LARRAZA XERKA PROIEKTUA

Abadiñoko Errota kultur etxeak sexilioari edo sexerbesteari buruzko berbaldia hartuko du urriaren 30ean. Saioan Amagoia Villanueva abadiñarrak ere parte hartuko du



Joseba Olagarai eta Martxel Larraza, argazki erakusketaren aurrean. XERKA

da alde egiteko duen behar horretaz konturatzen, kanpoan dagoen arte, eta bestelako baldintza batzuetan bizitzen hasten den arte.

Joseba Olagarai: Sexilioa oso gauza pertsonala da. Batzuek herritik irtetea pentsatu dute beharbada, baina ez dira sekula irten. Haien lekua topatu dute eta beren identitatea edo orientazioa problemarik gabe bizi ahal izan dute, normal. Beste batzuek, berriz, pentsatu eta kanpora joateko erabakia hartu dute. Eta kanpoan bizileku seguru bat topatu dute. Eta gero gertatu zaie herriminak edo dena delakoak eraginda berriro ere herrira bueltatzea. Azken finean, kolektiboko kideok bilatzen duguna ingurune seguru bat da. Ulertuak, onartuak, errespetatuak eta maitatuak izateko ingurunea. Eta ingurune hori herria izan daiteke, edo ez. Horren guztiaren atzean heteroarauaren zama dago. Bide bat markatzen digute sortzen garenetik, baina bide hori zama izan daiteke LGBT herritarrentzat.

"ERREFERENTEAK TOPATZEA ZAILAGOA DA HERRIETAN; HIRIAK ANONIMOTASUNA EMATEN DIZU"

Izan gay, lesbiana, trans edo LGBT komunitateko beste identitateen bat, badago alderik sexilioan?

M.L.: Sexilioa desberdin bizi dugu ezaugarrien arabera, eta baita generoaren arabera edo arrazalizatutako identitateen arabera ere. Hau da, desberdin bizi dute era nahiko maskulinoan adierazten den emakume lesbiana batek edo genero adierazpen erabat femeninoa performatzen duen mutil gay batek. Kontraste hori nabaritu dugu hitzaldietan. Adierazpen femenino hori herri txikietan askoz kondenatuagoa dagoela ikusi dugu, eta, aldiz, zisheteroarauak markatzen duen eredu maskulino horretara zenbat eta gehiago egokitu, orduan eta erosoago bizi daitekeela.

J.O.: Kolektibo barruan ere gertatzen da hori. Eredu zisheterora zenbat eta gehiago hurbildu orduan eta errazago onartuak gara herrietan. Alegia, bi emakumez osatutako familia bat, bi haur dituen, seguruenik onartuago egongo da mutil trans bat izan eta familiarik eraiki ez duena baino. Azken finean, sistemaren baitan zenbat eta disidenteagoa izan, zailagoa da herriaren parte izatea. Gonbidatuen ahotan sentitu dugu hori. Gogoan dut behin Soraluzen sentitu genuena (Gipuzkoa). Hitzaldi hartan bi gonbidatu izan genituen. Eurretako bat emakume lesbiana bat zen, beste emakume batekin ezkondata zegoena, eta ume biren amazena. Familian normaltasunez bizi zirela komentatzen zigun. Aldiz, mutil homosexual bat ere izan genuen gonbidatu, adierazteko modu femeninoa zuena, eta esaten zigun, gona janzten zuen aldiro begiradak, komentarioak eta uneren batean eraso batzuk ere jasan zituela. Eta hor ikus daitekeena feminotasunarekiko mespretxua da. Gizon bat femininoki agertzeak une deseroso ugari sortzen du oraindik ere.

Sexilioa kanpoan egon eta berriro ere herrira bueltatzean amaitzen da? Ala zauriek zarratu barik jarraitu dezakete?

J.O.: Pertsonaren arabera da hori. Hitzaldietan hainbat gai planteatzen dugu, eta ikusi duguna da sendatutzat jotzen zituzten zauriak berriro ere ireki izan zaizkiela hainbati. Aurrekoan, Leitzan ikusi genuen hori (Nafarroa). Bertako gonbi-

datuak, mutil homosexual batek, komentatzen zigun bere haurtzaroko diskriminazioak osatuta zituela uste zuela, baina zauria ukitzerakoan konturatzen zela ez zegoela sendatuta. Horrenbestez, sexilioa sendabidea izan daiteke, zein ez.

Zuen proiektuak sexiliatutako bost euskal herritarren testigantzak ditu oinarri. Zelan eta zergaitik aukeratu zenituzten bost herritar horiek?

M.L.: Hau guztia duela hiru urte hasi zen, unibertsitateko gradu amaierako lana egiten nembilela. Nahiko dokumentazio lan zabala egin nuen eta hainbat aktibistarekin eta elkarterekin bildu nintzen. Lagin txiki bat aukeratu nuen, eta, horrenbestez, ezinezkoa da herritarren LGTB errealitate osoa jasotzea. Alabaina, askotariko ezaugarriak plazaratzeko aukera ematen zuela ikusi nuen, testigantzak anizkoitzak baitira. Euskal Herriko lurraldetasunari dagokionez, hainbat herritarren datuak dauka; LGTB sigla aldetik, komunitateko kide desberdinak ageri dira, eta adin tarteari dagokionez ere desberdinak

dira profilak. Hainbat ezaugarri erakustea izan da helburua, baina, lagina txikia izatera, asko kanpoan geratu behar izan dira.

Urriaren 30ean estreinatuko duzue argazki erakusketa Abadiñon, berbaldia eskaintzeagaz batera. Bertara doanak zer topatuko du?

J.O.: Denerik landuko dugu. Berez, hitzaldia emango dugu, baina testigantza baten berri ere izango dugu, Amagoia Villanueva abadiñarra ondoan izango dugu-eta bere esperientzia kontatzen. Horrez gainera, solasaldia ere izango dugu. Egon garen herri guztietan sortu dira elkarrizketak hitzaldia amaitutakoan, eta horrek harrituta eta pozik utzi gaitu. Jendeak galderak egiten ditu, edo bizipen pertsonalak partekatzen ditu. Horrek bihotza betetzen digu, jendea hurbildu den aldiro sexilioaren gaiak itzaletik argitara egiten duelako. Izan ere, sexilioa beti egon da, eta oraindik ere badago. Komunitateko kideok kanpora joateko bultzada hori dugu oraindik. Gogoan dut Elgoibarren emakume batek kontatu ziguna. Duela hainbat

urte, herriko emakume bik herritik alde egin eta Andaluziara joan zirela esan zigun. Eta gure hitzaldiari esker ulertu zuen herrian hainbat urtez laguntzat jo zituzten emakume haiek biak bikote zirela. Eta hori askotan ikusi dugu. Askok ikusi dute ezagunen bat, osabaren bat, bizilagunen bat edo kuadrillakoren bat kanpora joatearen arrazoia sexilioa izan zitekeela, euren orientazioa edo generoa izan zitekeela alde egiteko arrazoia.

Zelako pertzepzioa izan dute berbaldietara joan diren LGTB herritarrek? Sexilioari buruz berba egitea eskertu dute?

M.L.: Bai, dudarik gabe. LGTB herritarrek gaiari buruz hitz egiteko beharra dutela ikusi dugu hitzaldietan. Herri txikiei dagokienez, horri guztiari erreparatzeko beharra ere badagoela ikusi dugu. Eta beharra ere badagoela oraindik hitz egiteko prest ez daudenek gaia entzuteko aukera izan dezaten. Beharra ikusten dugu, eta hitzaldia eman ondoren jendearen esker ona ere sentitzen dugu. Izugarriko esker ona. Inoiz kontatu ez diren bizipenak dira, baina herriko biztanle askorenak. Eta bizipenak norberarenak ez diren kasuetan, baliagarriak dira hurbilera begira jartzeko.

J.O.: Sexilioa tabua izan da urte askoan, eta jendeak beldurrez hitz egin du gaiari buruz. Gaur egun, 2025ean, gai hauei buruz mintzatzeko momentua da, euskal landa eremuan, herri txikietan edo euskaraz bizi garen herrietan batez ere. No-labait, gordeka eta baimen eske bizi izan garen denok geure lekua hartzen ari garen sentsazioa izaten dugu, eta hori bada arrakastaren parte.



LGBT komunitatearen manifestazioa Durangon, aurtun.

LGBT herritarren % 13k bizilekua aldatu eta sexiliora jotzen du

Beste % 21,5ek herritik alde egitea pentsatu du bizitzan inoiz, ingurune seguruak bilatze aldera

Ekaitz Herrera DATUAK

Irailaren amaieran, Espainiako FELGTBI+ federazioak sexilioari buruzko ikerketa kalera-tu zuen Salamancako Unibertsitateagaz lankidetzan. Hura izan zen Espainiako estatuan sexerbestea aztertzeke helburuz egindako lehenengo azterlana. Ikerlanean, orientazio sexualagaitik, identitateagaitik edo genero adierazpenagaitik herritik alde egitera behartutako fenomenoak aztertu zuten, estatuko 800 LGTB pertsonaren lagina oinarri hartuta. Emaitzek erakutsi dutenez, LGTB herritarren % 13k bizilekua aldatzen du, eta % 21,5ek hori egitea planteatu du inoiz. Horrenbestez, LGTB herritarren heren batek desplazamenduan topatzen du edo ikusten du bazterkeriatik ihes egiteko aukera.

Ikerketak beste datu azpimarragarri bat ere utzi du: sexilioak

LGBT komunitateko kide guztiei eragiten die, baina askoz ere esanguratsuagoa da trans pertsonengan eta arrazalizatutako pertsonengan. Gainera, ikerketak ondorioztatu du pertsona horiei beste zama batzuk ere gehitzen zaizkieela, desberdintasun ekonomiko eta sozialak gehienbat.

Ardatza hirien eta landa eremuko herrien artean jarritz gero, honako argazki hau du sexilioak Espainiako estatuan: desplazaturikoen % 43,4 hiritarrak ziren, % 26,9 atzeritarrak, eta % 13,5 baino ez ziren landa eremukoak. Erdiek baino gehiagok Autonomia Erkidegoren bateko hiriburua hautatu zuten bizileku modura. Baina hainbatentzat arazoa ez zen hor amaitu. Sexiliaturikoen % 17,3 kalean bizitakoak dira, % 11,5ek beldurrez bizi direla diote, eta % 8,7k depresioagaz bizi direla.



Xerka proiektuaren berbaldi bat. XERKA



urriak 23 - azaroak 13

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuz beteriko saskiak eta eman balioaren %25 zonaldeko euskalgintzari

errigora.eus



Errotari elkarteko kideak.

25 urte perretxikoen afizioa eta ikerketa bultzatzen

Errotari elkarteak mende laurdena bete du. Ia 400 bazkidegaz, elkarte sasoiko dago. Perretxikoen zaletasuna bultzatzeaz gainera, komunitate zientifikoari ekarpenak egiten jarraituko dute. 25 urtean 30 bat perretxiko espezie berri deskubritu dituzte

Ekaitz Herrera DURANGO

Helburu dibulgatiboagaz hasi zuten bidea, perretxikoekiko zaletasuna bultzatzen, txangoak antolatzen, herritarrei intoxikazioak prebenitzen laguntzen. Baina bidea hori baino askoz ere emankorragoa izan da. Errotarik perretxiko espezie berriak deskubritzen lagundu du 25 urte

hauetan, eta aliantza sare sendoak eratu ditu etxeko zein atzerriko elkarteekin. Sasoiko daude, ia 400 bazkide dira eta. "Asko gara, Durangokoak, eskualdekoak, Euskal Herrikan kanpoko hainbat hiritakoak, eta Europako bazkideak ere baditugu taldean", esan du Esteban Ruiz elkarteko presidentek. Errotarik Europako

mikologoaren artean erreferente izatea lortu du eta elkarteak urtero argitaratzen duen aldizkaria horren erakusgarri da: "Urtean behin kaleratzen dugu. Oso aldizkari prestigiotsua da mikologiaren munduan, maila zientifiko handikoa, teknikoa, eta, horrenbestez, gaxa mikologiari buruzko ezagutza txikia duenarentzat.

Europako herrialdeetako elkarteek eta mikologoek euren ikerketak gure argitalpenean publikatzeko eskatzen digute", azaldu du Ruizek. Errotarik etxean zein atzerrian deskubritu ditu perretxiko espezie berriak. Portugalgo Azoreetakoak eta Kanariar Uharteetakoak, besteak beste, "bertako perretxikoak ez dira-eta behar den beste ikertu". Eta, halako batean, beharbada, bat baino gehiago harrituko da Errotariren egoitzan, Intxaurrendoko erakinean, egiten den lan zientifikoaz jabetuta. "Perretxikoak batu ondoren, euren deskripzioa egin, sikagailuetan sartu eta esporak ikertzen ditugu. Mikroskopio elektronikoak darabiltzagu horretarako. Eta aleren bat berria dela uste badugu, DNA ikerketa egitera bidaltzen dugu", azaldu du Ruizek. 25 urte hauetan, euren lanari eskerrak, zientzialariek 30 perretxiko gehiago katalogatu dituzte, DNA sekuentziazioak ikertuta. Bestalde, elkarteak perretxikoen deskribapenekin eta ezaugarrieekin osaturiko hainbat liburuki kaleratu du. Tartean dago Durangoko lorategietako, parkeetako eta berdeguneetako perretxikoen berri ematen duen argitalpena.

Hala ere, dena ez da jakintza teknikoa. Errotarik jangarriak diren perretxikoen berri ematen du, baita kozinatzearen errezetak proposatu ere. Eta, jakina, txangoak antolatzen ditu perretxikotan joateko eta dibulgazioan

eragiteko. Kasu horietan, jakintza teknikoa ez da oztopo. Hurrengo txangoa Araba aldera egingo dute, Valderejoko Parke Naturalera. Azaroaren 15ean egingo dute irteera.

Aldaketa klimatikoa

Gauzak asko aldatzen dabilta aldaketa klimatikoagaitik, eta Errotarik ere igarri du horren eragina: "Lehen, iraila eta urria ziren perretxikotarako sasoirik onena. Baina orain dena atzeratu da. Uda honetan, adibidez, ez du ia euririk egin, eta boletus onddoak, jendeak gehien bilatzen dituen horiek, apenas irten dira. Horrez gainera, badago beste datu bat: aldaketa klimatikoaren eraginez, orain arte hegoalderagoko zonaldeetan irteten ziren perretxiko espezieak hasi gara ikusten hemen".

Errotarik mende laurdena egin du eta aurrerantzean ere beti bezain langile jarraituko du mikologia ikertzen eta herritarrek perretxikotan zaletzen. Elkarteak zabalik ditu ateak. Astelehenero batzen dira euren egoitzan, Intxaurrendoko erakinean, 19:30ean.

"GURE ALDIZKARIA ERREFERENTEA DA EUROPAN, MAILA ZIENTIFIKO HANDIKO ARGITALPENA DA"

"Etxebizitza larrialdiari aurre egiteko" plana aurkeztu dute

Durangoko EH Bilduk 10 neurri iradoki ditu. Euretariko bat San Agustingo ospitalean zuzkidura-etxeak egitea da

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko EH Bilduk 10 neurriko bide orria aurkeztu du udalerriko "etxebizitza larrialdiari aurre egiteko". Asteon aurkeztu dute plana, San Agustineko ospitale zaharraren aurrean, eta ez da kasualitatea koalizioak kokaleku hori aukeratu izana proposamena aurkezteko, neurrietariko batek eraikin horri eragiten dio eta. Izan ere, EH Bilduk zerbitzu publikoetarako etxebizitzak egin gura ditu ospitale zaharrean, eraikina adinekoentzat egokitu eta haiei

eskainita. Era berean, beste neurri batzuk ere proposatu dituzte. Batetik, udalerriko etxebizitza-jabe txikiak etxe hutsak mobilizatzen bultzatzea. Hain zuzen ere, EH Bilduk laguntzak eskaintzea proposatu du etxeok zaharberritu ahal izateko. Bestetik, Etxebizitza Bulegoa sortzea proposatu dute, udalerriko etxebizitza politika gidatzeaz arduratuko den sozietate publikoa eratzea. Azkenik, udalerriko goi solairuetako 115 negozio beheko solairuetara lekualdatzeko aukera ipini dute mahai gainean,



Durangoko EH Bilduk eguaztenean aurkeztu zuen plana. DURANGOKO EH BILDU

atikoetan dauden higiezinak etxebizitza bihurtu ahal izateko. Ima Garrastatxu zinegotziak azaldu duenez, etxebizitza bermatzeko "egiturazko neurriak ez daude denak udalen esku, baina, hala ere, udalek, duten

ahalmenagaz, paper garrantzitsua dute gai honetan". Gai horretan "ezer egin barik edo neurri kosmetikoak hartzen jarraitzea ez da aukera bat" bere esanetan, "gazteak etxetik joan ezinda daudenean".

Ia 11.000 bonu Durangoko dendetako erosketak bultzatzeko

E.H. DURANGO

Durango Udalak eta Dendak Baik merkataritza bonuen kanpaina berria ipini dute martxan. 10.898 bonu kaleratu eta herritarren eskura ipini dituzte, 10 euroan. Txartelok bonoa.durango.eus plataforman daude eskuragarri, eta bertan kontsultatu daiteke ere kanpainara atxikitako saltokien zerrenda.

10 euroko bonu bakoitzagaz kontsumitzaileek 15 euro gastatu ahal izango dituzte. Herritar bakoitzak lau txartel eskuratu ahal izango ditu gehienez, eta saltoki bakoitzak 200 bonu onartu ahal izango ditu gehienez. Bonu bi gehienez tiket bakoitzeko.

Pinondo Etxea kultur etxe izatea gura du udalak

Durangoko Udalak goitik behera berriztu nahi du Pinondo Etxea, eraikinari berriro ere erabilera kulturala emateko. Horretarako, aurreproiektua erredaktatu dute. Fatxada bere horretan mantenduko dute; barrualdean, hainbat moldaketa egingo dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak Pinondo Etxea berriro ere kultur etxe izateko prozesua hasi du. Prest daukate aurreproiektua, eta zaharberri-tzea finantzatzeko diru laguntza bila hasiko dira orain. Fatxada eta eraikinaren tamaina bere horretan mantenduko dituzte; barrualdean, oster, moldaketa ugari egingo dute gelak eta aretoak irisgarriak eta berrituak izan daitezten. Eraikinari garai bateko erabilera eman gura diote, hau da, kultura gaiak, ekitaldiak eta kulturagaz loturiko hezkuntza tailerrak aterpetu gura dituzte bertan. Beheko solairua erakusketak eta proiektzioak antolatzeko prestatuko dute, eta arreta bulegoa eta komunak ere izango dira bertan. Lehenengo solairuan gazteria eta kultura arloko bulegoak eta bilera gelak atonduko dituzte, eta bigarrenean argazkigintza, ikus-entzunezko eta diseinu tailerretarako gelak. Azkenik, goi-



Mireia Elkoroiribe eta Paule Sanchez.

ko solairuak ikus-entzunezkoentzat, ekitaldi informalentzat eta erakusketentzat izango du lekua. Proiektuak 2,5 milioi euroko kostua izango du.

Paule Sanchez zinegotziak azaldu duenez, proiektua "ez da birgaitze bat bakar-bakarrik. Kohe-

sioa, kultur dinamika, sormena eta tokiko talentua bultzatzeko lekua ere izango da Pinondo". Mireia Elkoroiribe alkateak gaineratu du udalerriak "eraikin enblematiko bat" berreskuratuko duela. "Ondarea babesteaz gainera, kulturaren eta pertsonen aldeko hiri eredua bultzatzen laguntzeko baliagarria izango delakoan nago", nabarmendu du.

Udalak diru laguntzak bilatuko ditu gainerako instituzio publikoetan, obrak finantzatu ahal izateko. Eraikina babestuta dagoenez, proiektua Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu dute, besteak beste. Exekuzio proiektua 2026an prest izatea gura dute. Baina urte batzuk itxaron beharko dira obrak hasteko. Udalak datorren legegintzaldian hasi gura ditu. Pinondo Etxea, Agirrebengoa Etxea izenagaz ere ezaguna, 1855ekoa da. Azken sei urteotan zarratuta egon da, txosten tekniko batek eraikina txarto zegoela jaso zuen eta.

Durangoko Udalak jaien balantze "oso positiboa" egin du

Gatibuk 9.500 lagun batu zituen; 700 herritar izan ziren tortilla lehiaketan. Puntu Moreak "esku-hartze bat" egin du

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak jaien balantze "oso positiboa" egin du. Jaiak parte hartze handikoak izan direla azaldu dute, eta giro "inklusibo eta segurua" ospatu direla. Gatiburen kontzertua izan zen ekitaldirik jendetsuena, 9.500 bat zale batu ziren-eta gernikarren emanaldian. Udaletxeko txupinazoak 6.300 bat lagun batu zituen, Bulego taldeak 7.500 bat, eta Kaparrak taldeak 6.000 inguru. Patata tortillen lehiaketan 700 bat lagun batu ziren, eta beste hainbeste sukalki artean. Era berean, udalak jardura berriek izandako harrera nabarmendu du, hala nola Txiki Rock eta Cinema Paradise kontzertuak eta Pakipaya zirku ikuskizuna.

Segurtasunari dagokionez, jaiak "gorabehera larrik barik" igaro dira. Udaltzaingoak 10 salaketa erregistratu ditu, "desorde-



Sukalki Eguna. LUCIA MERUELO

nengaitik, alkoholaren kontsumoagaitik eta objektu arrisku-tsuak eramateagaitik", eta 29 esku-hartze egin ditu zarategaitik eta zikinkeriagaitik. Puntu Moreak "esku-hartze bat" kudeatu duela jakinarazi dute, "telefono dei baten bitartez".

Sexu esplotazioa eta salerosketa aztertuko dituzte Durangon

Legelariak, adituek eta bizirauleek goiz osoko berbaldi sorta emango dute zapatuan, urriak 25, San Agustinen

Ekaitz Herrera DURANGO

San Agustin kulturguneak sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketari buruzko jardunaldi monografikoa hartuko du zapatu honetan. Jardunaldian, emakumeen aurkako indarkeriaren "errealitate krudela eta muturrekoa ikusarazi gura dute", baita horri buruz hausnartzera bultzatu ere. Horretarako, hainbat ertzetatik helduko diote gaiari. Alde juridikoa eta analisi psikosoziala aztertzeaz gainera, salerosketa sareetatik bizirik irtendako



Andreak elkartearen saioa 2020an.

emakumeen testigantzak eskainiko dituzte. Hizlarien artean, Estatuko Fiskaltza Nagusiko Salerosketa eta Atzeritartasun Unitateari atxikitako Maria Angeles Sanchez fiskala, Maria Angeles Jaime de Pablo Themis emakume juristen elkarteko kidea, Sara Vicente abokatua eta prostituzioa abolitzearen aldeko ekintzailea, Carmina Serrano psikoanalista, eta Iruñeko Las Poderosas elkarteko kideak egongo dira, Joy Ogbeide eta Lydia Osifo, besteak beste. Azken horiek salerosketaren biktimak dira. Ekitaldiari zuzeneko musika emanaldi batez eta taldearen bideoklip batez emango diote amaiera.

Andreak elkarteak eta Udaleko Berdintasun Sailak antolatuko dituzte berbaldiak. 09:15etik 14:00etara izango dira.

BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2025
www.bertsolaris.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsolarimarak.eus

FINALAURREKOA ·
LEHENENGO BUELTA
AZAROAK 2
domeka

ABADIÑO
PROBALEKUA · 17:00

Aitor Etxebarriazarraga Gabiola,
Enare Muniategi Etxabe,
Gorka Pagonabarraga Agorria,
Maite Sarasola Isazelaia,
Txaber Altube Sarrionandia
eta Unai Mendiburu Valor.

Antolatzailea Elkartetzailea Patroizkaria

Zornotza Aretoko denboraldia, martxan

Zornotza Aretoko denboraldi berriak egitarau zabala du: antzerkia, musika ikuskizunak, txotxongilo emanaldiak, zinema eta dantza garaikidea; Markeliñek etxean estreinatuko du bere lan berria, 'Hodei guztien gainetik' antzezlan

Joseba Derteano ZORNOTZA

Zornotza Aretok antzerkia, musika, txotxongilo emanaldiak, zinema eta dantza garaikidea batu ditu kultur denboraldi berrian. Denboraldi amaieran helduko da ekimen nagusietako bat; Zornotzako Markeliñe antzerki konpainiak etxean estreinatuko du obra berria, *Hodei guztien gainetik*. Urtarrilaren 10ean izango da hori. Lanak guraso eta seme-alaben arteko hartu-eman du ardatz, edo, zehatzago esateko, hartu-eman eza. "Produktibitatearen munduan gurasoek ez daukate kalitatezko denborarik euren seme-alabekin ekintzak egiteko", azaldu du Markeliñeko Iñaki Egiluzek. Lana lehenesten duen aita bat da protagonista; zorabiatu eta hodei artean itzartuko da, horixe da testurik bako obra honen abiapuntua.

Etiket larregi urrundu barik, Anita Maravillas talde zornotzarren hogeigarren urteurrena ospatuko dute abenduan Zorno-



Sonia Cabeza zinegotzia, Ainhoa Salterain alkatea eta Markeliñeko Iñaki Egiluz.

tza Aretokan. Hamarkada biko ibilbidea ospatzeko, konpainiak bere obrarik enblematikoenetarik hiru aurkeztuko ditu: *Jon Braun*, *Kotondarrak* eta *Andereño*. Abenduaren 29an eta 30ean, eta 2026ko urtarrilaren 2an eta 3an

izango dira emanaldiak, hurrenez hurren.

"Zornotza Aretok gure komunitatea aberasteko aukera ematen du", azaldu zuen Ainhoa Salterain alkateak joan zen asteke aurkezpenean.



Zornotzako anbulatorioa.

Kolon eta ondeste minbizia detektatzeko kanpainagaz bat

Zornotzako Udalak eta Minbiziaren Aurkako Elkarteak Osakidetza kanpainara animatu dituzte herritarrak

A. M. ZORNOTZA

Osakidetza 2023an jasotako datuen arabera, Zornotzan 50etik 69 urtera arteko herritarren % 75ek egin zuten kolon eta ondesteko minbizia prebenitzeko testa. Kasu horien % 4,19 positiboak izan ziren. Aurten, Osakidetza 74 urtera luzatu du adin-tarte, eta, gainera, bere buruari erronka ipini dio "datozen urteetan" adin tarte horretako herritar guztiek proba egin dezaten. Testa egiteko kanpaina betean, Minbiziaren Aurkako Elkarte (MAE) herriko eragileekin hartu-emanen ipini da parte hartzea bul-

tatzeko. "Gorozkietan ezkutatu-tako odolaren proba erraz egiten da, higienikoa, eroso eta arris- kurik bakoa da, eta ez du aurretiko hitzordurik behar", azaldu du Oihana Urraza Bizkaiko MAEko lurralde-garapenerako arduradunak. MAEren esanetan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan intzidentziarik handiena duen tumorea da kolon eta ondesteko minbizia; urtean 2.000 kasu inguru detektatzen dira. "Test honek bizia salbatu diezazuke, garai detektaturiko kolon eta ondesteko minbizia kasuen % 90 sendatzen dira eta", gaineratu du Urrazak.

Haztegiak beste deialdi bat egin du ekoizpen ekologikoan sartzeko

Urkiolako Landa Garapenak bultzatzen duen Haztegia programak nekazaritzara hurreratzeko helburua du



Artxiboko irudi bat.

A. M. BERRIZ

Haztegiaren "esperientzia arrakastatsuen" ondoren, Urkiola Landa Garapenerako Elkarteak programaren beste deialdi bat egin du. Eskerak azaroaren 7aren aurretik bidali behar dira. Nekazaritza-ustategietan erreleboa erraztea da programaren helburua, eta hautagai bila dabilta ziklo berrirako. 2026-2029 zikloan, laguntza hau jasoko duten lagun biek ekoizpen ekologikoaren birtartez produktuak ekoizteko lurrak eta azpiegiturak eskura izango dituzte; sektoreko profesionalen tutoretza izango dute horretarako. Onuradunek 35 urte baino gutxiago izatea, Durangaldean bizitzea eta baratze ekologikoan edo nekazaritzan esperientzia izatea baloratuko dituzte, besteak beste. Interesdunek *durangaldeaelikadura.eus* atarira jo dezakete.

Elorrioko XXXV. Errebonbilo margo lehiaketa, zapatuan

Iturrizoro elkarteak antolatzen duen lehiaketaren 35. edizioa da; irabazleak 750 euro eramango ditu

A. M. ELORRIO

Zapatuan, urriak 25, udazkene-ko klasikoa den Errebonbilo margo lehiaketa egingo dute Elorrioko Iturrizoro elkarteak antolatzen duen aire libreko margo lehiaketak XXXV. ekitaldia du aurtengoa. Beraz, margotzea gustuko duten herritarrek Elorrioko txokoak artelan bilakatuko dituzte beste urte batez; Erreka kalea, Iturrizoro edo Ganondo ohiko eszenatoki bihurtu dira urte hauetan. Urtero legez, partaideek herriko edozein txoko aukeratu deza-

kete horretarako; lanaren neurria eta erabili beharreko teknika margolarien esku daude. 09:00etan izena eman eta gero, parte hartzaileek 14:30era arte izango dute euren proposamenak aurkezteko aukera. Hiru sari nagusi banatuko dituzte, 750, 600 eta 500 eurokoak. Elorrioko artisten artean aurkezten den lanik onenari 150 euroko bonu bat emango diote. Lan sarituak Elorrioko elkartearentzat izango dira. Lan guztiak Iturri kultur etxean egongo dira azaroaren 14ra arte.

OSTALARITZA GIDA



IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behe
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

@gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

@basa.durango



DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)
-Eguneko menua 19,90€
-Dastatzeko menua 45 €
-Karta
Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)
-Mokadu karta
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea

"Mallabitarrei eskerrak jarraitu dugu hainbeste urtean"

ASUN GARITAGOITIA MILIKUA ETA AGUSTIN UDABE OSA TABERNARI OHIAK

Asun Garitagoitiak eta Agustin Udabek bizi osoa eman dute tabernari legez lanean. Lehenengo, Bastida taberna izan zuten, eta azken 30 urte hauetan Jubilatuen Etxea

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabiko jubilatuen taberna Asun Garitagoitiaren eta Agustín Udaberen etxea izan da azken 30 urteotan. Bertan egin dugu hitzordua beraiekin, eta eurak barraren atzean ikustera ohituta egon garen arren, orain barraren kanpoaldean aurkitu ditugu. Dagoeneko erretiroa hartu dute eta beste modu batera bizi dira orain. Asteburuan zita garrantzitsua dute; izan ere, Mallabiko Urriko jaietako txupineroak izango dira eta eurek emango diete hasiera jaiei.

Gaur arratsaldean zita garrantzitsua duzue. Urriko Jaiei hasiera emateko ohorea izango duzue. Dena prest duzue? Urduri zaudete?

Asun Garitagoitia: Ni oraingoz lasai nago, baina momentuan ikusi beharko da ea horrela nagoen. Eta bai, badut zeozer idatzita.

Agustín Udabe: Ni bai, ni urduritxo nago. Nire asmoa momentuan sentitzen dudana hori esatea da. Urte hauetan guztietan herritarrek ondo konpontzen



Asun Garitagoitia eta Agustín Udabe.

ahalegindu gara, denak ondo hartzen, eta ematen du orain hori bueltatu gura digutela.

Zuentzat jai bereziak izango dira aurtengoak. Denbora da herriko

jaiez gozatzeko aukerarik izan ez duzuela.

A. G.: Jaietan zein herrian zeozer antolatu denean lan egitea tokatu zaigu orain arte;

beraz, jai hauetan disfrutatzea tokatzen zaigu. Horren falta igarri dut beti, herrian zeozer egon denean ezin izan dudala parte hartu. Esaterako, Aitor Elordiren omenaldi egunean edo herrian zeozer antolatu denean. Halakoetan lan egitea tokatu zaigu.

A. U.: Ekitaldi horietan ezin parte hartzearen eta gure semeekin denbora gehiago pasatu ez izatearen damu apurtxo bat dugu.

Zuen lan ibilbideari errebaso bat eginda, bizi osoa eman duzue barra barruan.

A.G.: Bai. Mallabiko Jubilatuen Tabernan ia 30 urte egin ditugu, 29 urte eta lau hilabete hain zuzen ere.

A.U.: Gure gazte denbora guztia hemen egin dugu, tabernan.

A.G.: Lehenengo, Bastida hartu genuen, eta gero jubilatuen etxea. Bastida hartu genuenean Agustinek 21 urte zituen, eta nik 19 urte. Han ia 13 urte egin genituen. Ondoren, hona etorri ginen eta hemen ia 30 urte egin ditugu.

Zelako bezeroak dira mallabitarrak?

A.U.: Oso onak, jende bikaina dago Mallabian. Gainera, hona jende heldua zein gaztea etorri izan da, eta oso eskertuta gaudela. Horrelako herri txiki batean pertsona nagusiekin bakarrik negozioa aurrera ateratzea gax da, baina gurean herritar guztiek izan dute tokia, eta denak etorri izan dira.

A.G.: Jubilatuekin bakarrik beharbada ezingo genuen bizi-modua aurrera atera, baina guk zortea izan dugu, adin guztietako jendea bertaratu da eta. Mundu guztiak zabalik izan du tabernako atea.

Kafe bat, trago bat edo pintxo bat ateratzeaz gainera, herritar askori eta batez ere nagusiei konpainia ere egin diezue.

A.G.: Bai, sarritan lagundu izan diegu bezeroei karta jokoan eta egin izan diegu konpainia. Eta baita eurek guri ere, jakina. Oso oroitzapen onak ditugu eta betirako izango ditugu. Esaterako, asko gogoratzen gara guretzat Ametsa baserriko amama zen Rosariogaz. Emakume zoragarria zen. Bere ilusio osoagaz prestatzen zen hona etorri eta kartetan egiteko. Tabernako gure azken egunean, despedida egunean, Rosario gugaz egon zen. Handik gutxira iktus bat izan zuen eta utzi egin gaitu. Berari konpainia egitea plazer bat izan da.

Amaitzeko, beste ezer gehiatu gura zenukete?

A.G.: Herri osoari eskerrak eman gura dizkiogu. Mallabitarrei eskerrak jarraitu dugu hainbeste urtean. Dena zor diegu.

"GURERA JENDE HELDUA ZEIN GAZTEA ETORRI DA, GUREAN HERRITAR GUZTIEK IZAN DUTE TOKIA"

Etxebizitza eta aparkaleku falta abadiñarren kezka nagusiak

Herritarren gehiengoak ontzat hartu ditu udalak aparkalekuen arazoa konpontzeko harturiko neurriak

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

2023-2027 agintaldiak ibilbidearen erdia bete du dagoeneko eta herritarrek udalaren inguruan zein udalerrian egiten dabiltzan lanen inguruan duten iritzia ezagutzeko, udalak balorazio-inkesta bat egin du. Aztiker enpresak egin zuen inkesta, irailaren bigarren hamabostaldian, eta 395 herritarrek parte hartu zuten bertan. Asteon, inkesta horren emaitzak plazaratu dituzte. "Emaitzak erakusten dute herritarrek ondo baloratzen dutela hainbat alderdi, baina lanean jarraitu beharko

dugu beste arazo batzuk konpontzeko", esan du gobernu taldeak.

Inkestaren arabera, herritarrek etxebizitza izendatu dute herriko arazo nagusi modura, eta baita aparkaleku falta ere. Horregaz lotuta, Traña-Matienako aparkaleku sistema berria egoki edo oso egoki ikusten dute parte hartzaileen % 60,3k, eta desegoki edo oso desegoki % 23,8k. Herritarren erdiek uste dute errazagoa dela gaur egun udalerrian aparkatzea.

Ordezkarik politikoei buruz ere egin dute balorazioa. Mikel Urrutia alkatea (EH Bildu) hamarre-



Mikel Urrutia, Asier Etxenike, Aziker enpresako kidea eta Edurne Maguregi prentsaurrekoan.

tik bederatzik ezagutzen dute eta 6,9ko puntuazioa du batez beste. Mikel Garaizabal (EAJ) herritarren % 76,3k ezagutzen dute eta 5,8ko puntuazioa du; Edurne Maguregi (AIB) herritarren % 53k ezagutzen dute eta

5,6ko puntuazioa du; Naiara Bidosola (EH Bildu) herritarren % 51,7k ezagutzen dute eta 7,1eko puntuazioa du; eta Francisco Antonio Campo herritarren % 41,2k ezagutzen dute eta 5,7ko puntuazioa du.

Urriaren 27tik 30era auzo bilerak egingo dituzte Mallabian

M.Z. MALLABIA

Datorren astean, urriaren 27tik 30era bitartean, auzo bilerak egingo dituzte Mallabian. Batzar hauen asmoa herritarren parte hartzea bultzatzea eta udalaren eta herritarren arteko komunikazio zuzena indartzea da. Udalak parte hartzeko deia egin die herritarrei.

Bilera guztiak 19:00etan izango dira eta haxe da ezarritako egutegia: urriaren 27an Gereia eta Berano auzoetan izango dira bilerak; urriaren 28an Arandoño eta Berano auzoetan; urriaren 29an Areitio, Zengotita, Aitxu eta Osma auzoetan; eta azkenik, urriaren 30ean, herrigunean.



Durangaldeko
Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

*Durangaldeko OKm gida
erakusleiko ezin hobea duzu
eskualdeko merkataritza
eta zerbitzuetan.*

*Jarri gurekin harremanetan konprometuz barik
688 731 402 telefonoan*

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

www.anboto.org/gida



anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

URRIKO ZOZKETAK



BASA take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Fosroc enpresako langileek hainbat greba egun egin dute

Izurtzako enpresako hogeita bi langile kaleratzeko arriskuan daudela salatu dute LAB eta ELA sindikatuek



Lehenengo greba eguneko irudi bat, joan zen asteko egunean. LAB

J.D. IZURTZA

Gaur beste greba egun bat dute Izurtzako Fosroc enpresan. Aste-beteen egiten duten bosgarren greba eguna da. Izan ere, 22 langile kaleratzeko arriskuan daude, ELA eta LAB sindikatuek salatu dutenez. Frantziako Saint-Gobain multinazionalak Fosroc enpresa erosi zuen urte hasieran. Saint-Go-

bainen jabetzakoa den Toledoko enpresa batek Fosrocen antzerako produktuak ekoizten ditu: eraikuntzarako produktu kimiko espezializatuak. "Beraz, hemengo lana hara eraman gura du", LABeko iturrien arabera. Zazpi langile Toledora eraman eta 22 kaleratu gura dituztela esan du sindikatuak.

Santa Ursula eguna jai giroan ospatu dute asteen Mañarian

Martitzenean 80 bat lagunak pilotalekuan bazkaldu zuten Ursula Donea elkarteak antolatutako ekimenean



Bazkaritara joan zirenen familia argazkia.

J.D. MAÑARIA

Mañariarrek Santa Ursula eguna —herriko patroia— ospatu zuten martitzenean. Ursula Donea nagusien elkarteak antolatu eta udalak lagundutako ekimenean, 80 bat lagunak pilotalekuan bazkaldu zuten. Bazka-

laurrean Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak jai giroa ipini zuten herriko kaleetan. Hara baturikoen familia argazkia atera eta gero, bazkaritara joan ziren. Bazkalostean ere ez zen musikarik eta dantzarik falta izan bertaraturikoen artean.

Atxondoko abenduko azokarako postuen izen ematea, martxan

J.D. ATXONDO

Apatako plaza inguruak Atxondoko Nekazaritza eta Artisautza Azokaren beste aldi bat hartuko du abenduaren 7an. Hitzordu horri begira, martxan da postua ipini gura dutenentzako izen emate prozesua, udalak jakinarazi duenez. Azaroaren 8ra arteko epea dago horretarako. Izen ematea udaletxean bertan egin daiteke, eta baita telematikoki ere, udaleko webgunearen bitartez (atxondo.eus).

Udalak nekazaritza arloko postuak (ortuariak...) indartzeko apustua egingo du aurtan. Horregaitik, lehen sektoreko postuen kopurua handitzea da helburua. Plaza nagusian kokatuko dituzte, eta bertaratzen direnei jan-edianerako aukera eskainiko diete. Horrela, plaza inguruko jai-giroari bultzada bat eman gura zaio.

Artisautza postuen artean aukeraketa bat egingo da horretarako beharrik balego. Postu hauek farmazia ondoko plazan kokatuko dituzte.

Azaroaren 8a eta 15a dira auzolanerako deialdi biak Mañarian

J.D. MAÑARIKO

Mañariko Udalak auzolana antolatu du. Egund bi daude: azaroaren 8ko eta 15eko zapatuak. Bietarako hitzordua 08:00etan da, plazan. Auzolanean parte hartzeko izen ematea azaroaren 7ra arte egin daiteke, udaletxean (07:30-11:00). Bigarren egunaren amaieran, parte hartzaileek bazkaria izango dute. Bazkarira joateko beharrezkoa da aurretik baieztatzea.



Auzolanean bide bazterrak garbitzen.

Maiztegiko jolastokiaren egoera salatu dute

Maiztegi herri eskolako Guraso Elkarteak eta Ametsaren Batzordeak jakinarazi dutenez, lurretako Udalak ez ditu 2022an adostu zituzten pausoak eman eskolako patioan eraldaketak egiteko. Txintxaunak itxita daudela salatu dute

A. Basauri IURRETA

2021-2022an lehenengo pausoak eman zituzten Maiztegi herri eskola amestutako eskola bihurtzeko. Eskola komunitate osoaren parte hartzeagaz Ametsa proiektuari ekin zioten, eta, hori gartzeko, Ametsaren Batzordea sortu zuten. Ondo bereizitutako esparru bi zehaztu zituzten: patioaren eraldaketa eta barne eraldaketa. Guraso Elkarteak eta Ametsaren Batzordeak azaldu dutenez, eskola publikoa izanik udalak prozesuaren berri izan du hasieratik, eta proiektuan parte hartu du. Hala ere, eskolako patioa txintxaunei erreparatuta haserre daude. "Txintxaunak itxita daude eta umeez ezin dute erabili hain garrantzitsua den zati hori", kritikatu dute. Esan dutenez, patioa eraldatzeko 2022an adostutako pausoak ez dira bete.

Guraso Elkarteak eta Ametsaren Batzordeak ohar batean jakinarazi dutenez, zuzendaritza taldeko kideak eta guraso batzuk



Eskolako patioa. GURASO ELKARTEA

udalagaz bildu ziren 2022ko urte amaieran. "Patioaren eraldaketaren inguruan berba egin genuen, eta birmoldaketa sakona, luzea eta garestia izan zitekeela jakin arren, eman beharreko pauso batzuk adostu genituen hasiera-

tik. Tartean, txarto zeuden txintxaunak aldatzea", esan dute. Ametsaren Batzordeak 2023ko lehenengo hileetan aurkeztu zuen jolas berrien aukeraketa. Eta "eskola komunitate osoaren ametsak" aztertzen zituen ikerketa proiektuaren lehenengo emaitzak aurkeztu zituzten udalean. "Eskolako guraso baten gidaritzapean, Deustuko unibertsitateko ikasle batek egindako ikerketa abiapuntu hartuta, udalak arkitektura proiektu bat eskatu zuen", argitu dute.

Guraso Elkarteak eta Ametsa Batzordeak esan dutenez, udalak hiru fasetan gauzatuko zen proiektua aurkeztu zien 2024an. "Baina jakin badakigu denon artean sorturiko proiektua moldatzea eta merketzea eskatu dena. Ametsaren oinarria den prozesu parte hartzailea eta gardentasuna baztertu dituzte", kritikatu dute. 2024an udalagaz batzartzea eskatu zuten eta oraindino ez dute erantzunik jaso, esan dutenez.



Obrak San Andres auzoaren inguruan. ZALDIBARKO UDALA

N-634 errepidea hobetzeko lanak martxan, Zaldibarren

Semaforoak ipiniko dituzte Euskal Herria, Arantzamendi eta Abeletxe kaleen sarreretan; eta biribilgunea Muelles Zalduan

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Bizkaiko Foru Aldundia N-634 errepidearen ingurua hobetzen hasi da Zaldibarko erdigunean. Datozen hiru urteetan zehar, Foru Aldundiak San Andres hiribidetik beherako errepide inguru osoa egokituko du, Arantzamendi eta Euskal Herria kaleen lotuneraino. Herriko azpiegiturak, oinezkoen segurtasuna eta irisgarritasuna hobetu gura dituzte. Jarduketaren artean, honako hauek daude: Arantzamendi eta Euskal Herria kaleen sarreretan semaforo adimendunak ipiniko dituzte, eta

baita Abeletxeko irteeran ere, oinezkoek errepidea modu seguruan igaro dezaten. Muelles Zaldua enpresaren ondoan biribilgunea ipiniko dute eta zabaldu egingo dituzte autobusen galekuak. Azkenik, San Andres aldeko errepidea mendebalderago eramango dute, oinezkoen segurtasuna hobetzeko. Aldundiak 4.180.073,97 euroko inbertsioa egingo du. Eneritz Azpitarte alkateak esan du udalak eta Aldundiak urte luzez jardun dutela lankidetzan proiektua prestatzen. Aurrerantzean ere ildo beretik jarraitzea deitu du.

Korta-basoei buruz ikasteko aukera, asteburuetan, Garain

Elizabarrik korta-basoen jatorria eta erabilera aztertzen dituen erakusketa hartuko du azaroaren 9ra arte



Hainbat panelek eta elementuk osatzen dute erakusketa. GARAIKO UDALA

E.H. GARAI

Garaiko Udalak eta Aldundiak *Biribilak mendietan, Seles, kortak, sarioiak* erakusketa atondu dute Elizabarrin, mendietako korta-basoei buruzko esposizioa. Horma irudiekin, aireko argazkiekin eta dokumentu historikoekin ondutako erakusketa da, korta-basoen jatorria, egitura, mugatzeko erak, tipologia, kokalekuak eta erabilera aletzen dituen. Erakusketa azaroaren 9ra arte bisitatu ahal izango da, zapatu-domeketan, 11:00etatik 14:00etara.

Besteak beste, XVII. eta XVIII. mendeetako korta-basoen jatorrizko krokisak daude, Iurretako Udal Artxibo Historikoko aleak euretariko batzuk, eta baita Juan Ramon Iturritza historialari berriztarraren eta Pedro Bernardo Villareal ingeniariaren testu zaharrak ere.

Otxandioko aberastasun arkitektonikoa, aztergai

Zapatuan ibilbide gidatua egingo dute Plaza Nagusiaren inguruan garatutako eraikuntzak ezagutzeko

A.B. OTXANDIO

Otxandion Plaza Nagusiaren inguruan garatu dira herriko elementu arkitektonikorik garrantzitsuenak. Esaterako, herriko udaletxea eraikuntza barrokoaren adibide ezin hobea da, Bizkaian garrantzitsuenetarikoa bat. Eta parez pare dagoen frontoia 1857an eraiki zuen Kristobal Bernaola arkitekto arratiarrak. Pasealekua eta Bolatokia ere aipagarriak dira, eta, horregaz lotuta, 1861eko harrizko zutabe segida. Vulcanoren harrizko irudiak osatzen du

Otxandioko herriguneak batzen duen aberastasun arkitektonikoa.

Elementu eta eraikuntza horiek gehiago ezagutzeko, zapatuan ekitaldia egingo dute Europako Ondare Jardunaldien barruan, udalak Gerediaga elkartearen laguntzagaz antolatuta. Ibilbide gidatua 11:00etan hasiko da, Plaza Nagusian bertan. Lekua mugatua denez, aurretiaz izena eman behar da. Horretarako, 94 681 80 66 telefono zenbakira deitu daiteke, edo ejardunaldiak@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DOMU SANTU EGUNA 2025



FUNERARIA
LARRAZ
EHORZTEEXEA



FUNERARIA LARRAZ
ANATODIO BEIZATOKIA



Pol. Biarritz, pab 53 - Amorebieta | Tel.: 94 673 06 23 | www.funerarialarraz.com



Aritz Maldonado ABADIÑO

Iñaki Intxausti medikuak berbaldiak ematen ditu Aurretiazko Borondateen Agiriaren nondik norakoak azaltzeko. Jendeak heriotzaz berba egitea garrantzitsua da, gaia naturalizatzen. "Dokumentua ezagutaraztea eta betetzea da hitzaldi hauen helburua, oso baliagarria delako denontzat". Eguenean, Atxondoko eskola zaharretan eman zuen berbaldia.

Zer zehazten du Aurretiazko Borondateen Dokumentuak?

Funtsean, norbera bere kabuz erabakitzeke gai ez denean zer egin eta zelan egin zehazten duen dokumentua da. Idatzita dagoenez, bertan ipintzen duena betetzea baino ez da geratzen. Hori da oinarria. Gero agiri barruan gauza asko zehaztu daiteke. Azalpen guztiak hitzaldian ematen ditugu, eta gero etxekoekin gogoeta egin eta gero erabakitzen dute dokumentu hori bete edo ez.

Jendeak zer kezka izaten du?

Gure helburua informazioa ematea da, eta, zelanbait, kontzientziak astintzea, hitzaldira datozenek gogoeta egin dezaten. Dokumentua zer den, zer puntu dituen eta zelan betetzen den azaltzen dugu. Etxean heriotzari buruz berba egiten hasteko modu bat da, hurrekoen heriotzari buruz, batez ere. Dena dela, agiria betetzea norberaren aukera da, bete eta Gasteizera bidaltzea, edo batzar informatibo soil bat izatea.

Garrantzitsua da heriotzari buruz berba egitea.

Jakina. Jendeak normalean ez du gai honi buruz berba egin gura, senide baten heriotzaz berba egitea mingarria izan daitekeelako. Eta mingarria da, jakina, baina guztiz erreala, eta

"Etxean heriotzaz berba egiteko baliagarria da agiria"

IÑAKI INTXAUSTI MEDIKUA

Aurretiazko Borondateen Agiriari buruzko berbaldiak ematen ditu Zelaietako medikuak (Abadiño); dokumentua lagungarria da profesional zein familientzat



Iñaki Intxausti, Zelaietako anbulatorioaren kanpoaldean.

lehenago edo geroago gertatuko dena. Gaia zenbat eta gehiago normaldu eta horri buruz zenbat eta gehiago berba egin, errazago egingo da. Norberak ariketa hori egitea da lehenengo pausoa. Gaztea zarenean ez duzu horretan pentsatzen, hazten zoaz eta ez duzu pentsatzen. Inguruak ere ez du laguntzen hausnarketa hori egiteko. Zer pentsatu behar dugu: 'Inoiz hilko naiz, baina zelan hil gura dut?'. Horixe da lehenengo pausoa. Behin hausnarketa hori eginda, hurrengo pausoa hori partekatzea

da, eta hori, batez ere, gertukoekin egiten dugu, senide zein lagunekin. Eta gero, dokumentuak berak zehazten du zelan gauzatu hori. Adibidez, kimioterapia tratamendu bat hartu edo ez erabaki dezakezu, edo erreanimazio teknikarik ez jasotzea, edo zure gorpua zientziari dohaintzan ematea, organo emailea izatea, asistentzia erlijiosoa jaso gura duzun edo ez, eta hau oso garrantzitsua da, sedazioa jaso gura duzun edo ez. Hori guzti hori erabakita utzi dezakezu. Hori idatzita utziz

gero, zure ingurukoak ez dituzu derrigortuko erabaki hori hartu behar izatera. Horrek gatazka asko ekidin dezake. Beharbada, norberak idea bat du, baina albokoak ez du zertan berdin pentsatu, eta gatazkak sortzen dira hor. Behin erabakita, ez dago gatazkarik, erabakitako horri jarraitzea baino ez da geratzen. Ingurukoei karga handi bat kentzen zaie horrela, eta hori azaltzen da. Horrek harritzen du jendea gehien, norberak gura duena egingo duela planteatzeak, baita jendea ez duzula egoera korapilotsu batean sartuko. Hori ere oso lasaigarria da familientzat.

Oso praktikoa da profesional zein familientzat.

Alde batetik, medikuaren eta pazientearen arteko konfiantza sendotzen du, gai arantzatsu bati buruz berba egiten delako, eta, beste alde batetik, gerokoa errazten du, medikuak dokumentua esku artean edukita ez duelako inolako dudarik-edo izango. Dena errazago egingo duzu, eta lasaiago gainera, pazienteak gura zuena egin duzulako. Horixe da garrantzitsuena, eta familiak ezer erabaki behar ez izatea ere. Modu horretan, konpainia egitea da egin beharreko bakarra.

Zer jende joaten da berbaldietara?

Berbaldiak edozein herritarrentzat dira. Arlo bi daude hemen; alde batetik, Osakidetza egiten dituen deialdiak. Horiek bi-hiru hilean behin egiten ditugu, Matienan edo Zelaietan. Berriz eta Elorrioren ere egin izan ditugu, baina gehienak hemen egiten ditugu. Etortzen diren gehienak 50-60 urtetik gorakoak izaten dira, eta, batez ere, emakumeak. Erdiak baino gehiago izaten dira ia beti. 40 urtetik beherakoren bat ere agertu izan da inoiz, baina oso gutxi. Bestalde, Nagusien Etxeko deialdiak egoten dira. Hainbat berbaldi eman dut azken sasoian, Berriz orain dela gutxi, Atxondon, Abadiñoko Nagusien egoitzan... Horrek ez du zerikusirik Osakidetzagaz, baina guk herritar guztiei eskaintzen dizkiegu. Zenbat eta jende gehiago egon, orduan eta galdera gehiago egoten da, eta horrek piztu egiten ditu hausnarketa eta solasaldia. Horra ere jende nagusiagoa etortzen da normalean.

Amaitzeko, azken kontu bat argitu gura nuke. Askok Aurretiazko Borondateen Dokumentua eta eutanasia nahasten dituzte. Gure dokumentuko atal bat eutanasiari buruzkoa da. Halako kasu batean, pazienteak erabakitzeke gai ez bada eta baldintzak betetzen badira, ea eutanasia gura duen zehazten da. Horrek duda asko sortzen dio jendeari, ez dituelako borondateen dokumentua eta eutanasia bereizten. Berbaldietan ondo azaltzen dugu zer den bakoitza eta ez dutela zerikusirik.

"PENTSATU BEHAR DUGU: 'INOIZ HILKO NAIZ, BAINA ZELAN HIL GURA DUT?'

Begoña Albisua Uribarri

ABOKATUA

HERENTZIAK
oinordetzetan aditua

alokairuak kontratuak, fidantzak
dibortzioak guraso-erreserba hartemak
arlo penalak akordioak, lesioak, lapurreak
maileguak dohatzak...

Irtenbide legalak argi eta hurbiltasunez



baltisua@abokates.es
656 70 20 12

• ARRATE •

BEILATOKIA · EHORZTETXEA

Zengotitabengoa, 10 - 48240 BERRIZ - 94 682 47 39
Montevideo, 21 - 48200 DURANGO - 94 620 22 20
629 456 585 - 630 968 098
funerariaarrate@gmail.com

GEURIA MARMOLERIA DURANGO Y DURANGUESADO

**ESPEZIALISTAK HILERRIETAKO LANETAN
PLAKAK, PANTEOIAK, NITXOAK,
GARBIKETA, MANTENU LANAK, ETAB.**



URTE ASKOKO ESPERIENTZIA

ERAKUSTALDIAK ETA AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE



646 15 44 18



688 84 76 32

"Bakoitzak bere denborak ditu eta pazientzia behar da"

TAMARA BENITO PIRIZ (1984, ZALDIBAR) ZORNOTZAKO EGOZ PSIKOLOGIA

Heriotza bizitzaren parte den arren, askotan ez gaude prest galera bati aurre egiteko. Laguntza profesionalak sentimenduak ulertzen eta dolua gainditzeko lagundu dezake. Bidean aurrera egiteko laguntza eskatzea ezinbestekoa da

Joseba Derteano ZORNOTZA

Ez dago errezeta bat eta bakarria dolua eramaten laguntzeko, pertsona bakoitza mundu bat delako. Horregaitik, Tamara Benitok kasuan kasuko terapiak aplikatzen ditu Zornotzan duen Egoz psikologia bulegoan.

Kostatu egiten da laguntza bilatzea doluari aurre egiteko?

Lehenengo eta behin, ulertu egin behar dugu lehenengo edo geroago denoi helduko zaigula doluari aurre egin behar izatea. Historian zehar gizakiak beti presente izan duen esperientzia da. Baina denek ez dute berdin bizi. Pertsona bakoitzak bere modura eramaten du dolua, baina denetan antzeko ezaugarriak aurkitu daitezke. Esaterako, une horietan sentitzen den tristezia momentu sakona, ezertarako indarrik barik uzten zaituena. Laguntasun profesionala bilatzeak momentu horretan seguruenik ez duzun ausardia eskatzen du. Horregaitik, garrantzitsua da familiaren edo ingurukoen laguntza pauso hori emateko. Asko horrela etortzen dira gugana, ingurukoek animatuta edo konbentzitutak.

Zeintzuk terapia dira eraginkorrenak dolua bizi duen pertsona bati laguntzeko?

Ez dago denentzat baliagarria den protokolo zehatz bat. Kasu



Tamara Benitok urte askotako esperientzia du psikologian.

bakoitzak bere ertzak ditu. Gako inportante bat enpatia da, pertsona horrek bizi duen min horregaz bat egitea, minaren ingurumari guztiak ezagutzea. Informazio hori guzti hori eza gutzea garrantzitsua da dolua pasatzeko, zer etapatan dagoen jakiteko. Ukazioa da hasierako etapa; hau da, "hau ezin zait niri gertatu". Maiz haserrea ere agertu daiteke: "Zergaitik niri?". Horien ondoren, beste etapa batzuk datoz, azkenengora heldu arte: onarpena. Beraz, pertsona zein etapatan dagoen jakin

behar da lehenengo, eta etapa hori zelan bizi duen. Esaterako, baliteke pertsona batek katarsi bat behar izatea, arazoari zuzen aurre egitea. Beste batez, beharbada, komenigarriagoa da astiroago joatea. Bakoitzak bere denborak ditu. Azken batean, errealitate berri batera egokitu behar dira eta pazientzia handia izatea beharrezkoa da kasu guztietan. Behin paziente bakoitzaren kasua modu sakonean eza gututa, terapia konkretuak garatzen dira. Psikologiaren munduan terapia mota asko dago.

Heriotza gertatu den moduak (bat-batekoa, gaixotasun luze baten ondorioz...) eragiten du dolua bizitzeko moduan?

Bai, jakina. Alde handia egon daiteke. Adineko bat gaixotasun luze baten ondorioz doanean naturalago ikusten dugu. Kasu batzuetan aringarria ere izan daiteke alde guztientzat. Min eramangarria dela esan daiteke. Pertsona gazte bati buruz gabiltzanean edo bat-batean joan den bat denean, injustizia sentimendu bat sortzen da eta eragiten duen inpaktua handiagoa izan daiteke.

Zelan kudeatzen da heriotzaren ondoren askok sentitzen duten errua edo "gehiago egin nezakeen" sentsazioa?

Begirada atzera bota eta zeozergaitik errudun sentitzea sarritan gertatzen da. "Hau edo bestea egin izan banu", pentsatzea. Normala da halako pentsamenduak agertzea, baina garrantzitsua da ulertzea une hartan ahal zen ondoen jokatu zela. Denboragaz erru hori onartu eta samurtzen joatea da helburua.

Maite duzunaren heriotza guztiz gainditu daiteke ala beragaz elkarbizitzen ikastea da kontua?

Bai, gainditu daiteke, batez ere heriotza naturalagoak diren kasuetan, lehenago aipatu dudan

moduan. Bat-bateko heriotza batzuetan, zoritxarrez, denbora luzez egon zaitezke maite zenuen horrengan pentsatzen eta zeure barrua astintzen. Baina, orokorrean, berba eginda, esango nuke posible dela joan den hori kariñoa eta samurtasunez gogoratzea, asaldurarik barik. Eta, modu horretara, gogoratzen duzunean hor ondoan jarraituko balu legez da.

Zer laguntza eskaini diezaiokete ingurukoek (famiak, lagunek...) dolua daramanari?

Pertsona horri behar duen espazioa ematea aholkatuko nuke. Eman denbora eta izan pazientzia. Dolua gainditzea prozesu bat da eta bere denbora behar du. Eta eman babesa eta kariñoa, eskertuko ditu eta.

Orain arte, hildakoaren lagun edo senitarkoari buruz aritu gara, baina utzidazu gaia apur bat gehiago bihurtzen. Zelan laguntzen zaio gaixotasun baten ondorioz hil egingo dela diagnostikatu dioten bati?

Galdera konplexua da. Lehenengo lana entzutea da, pertsonak zer behar duen jakitea, denok ez garelako berdinak. Egoera horretan dagoen batek maite dituenekin eta bere buruagaz bakean dagoela joan gurako duela suposatzen dut. Agur hori egoki bideratzea izango litzateke lan bat. **Zelan kudeatzen duzu zuk zeuk halako prozesuetan laguntzeak zuzen sortzen duen eragin emozionala?**

Ez da erraza, enpatia handia sentitzen duen pertsona naiz eta. Pertsona bati zelan lagundu, etengabe buruan bueltaka izan dezakedan zerbait da. Beraz, psikologo bata erantzi eta bulegoan uzten ahalegindu behar duzu. Distantzia bat hartzen ikasi behar duzu, sarritan kostatu egiten den arren.

URIBESALGO LORAK

Maspe 2, IURRETA

Tel.: 946 21 82 59

Mugikorra: 626 647 474

SUFRIMENDUA GERATZEN DIRENENTZAT DA

"Pasatuko zaizu" "izan zaitez indartsua",
"atsekabeen laguntzen dizut".
Egoz Psikologian ez ditugu
esaldi eginak errepikatzen.

Entzun egiten dugu. Ulertu egiten dugu.
Edozein dela ere, zure oinazeak arreta
izatea eta seriozki hartzea merezi duelako.

EGOZ
CENTRO DE PSICOLOGÍA GENERAL

Amorebieta
Tel.: 634 675 606



Aitor Echarte.

"Garrasi epairik bako leku bat dela azaltzen diet ikasleei"

AITOR ECHARTE AKTOREA ETA GARRASI KUDEATZAILEA

Durangoko alde zaharrean, Barrenkalean, antzerkita hurbildu eta lehenengo pausoak ematen laguntzeko espazioa sortu du Aitor Echartek; udan ipini zuen martxan

Aritz Maldonado DURANGO

Aitor Echarte aktore durangarrak beste abentura bati ekin dio; Garrasi antzerki tailerra sortu du Durangon. Aurrera begira, Durangoko sortzaileen topagune izatea ere gustatuko litzaioke. Sortzaileok "ez dugu elkar eza-gutzen", esan du.

Zer dela eta sortu duzu Garrasi?

Hasierako ideia sormen leku bat sortzea zen, niretzat, proiektu propioak garatzeko. Orain urte pare bat, lagun dudana idazle batez berba egin nuen, gidoi bat

idazteko eskatu nion. Orain hilabete inguru bidali dizkit lehenengo zirriborroak. Hori prestatzen hasi aurretik, banekien toki bat beharko nuena gidioa garatzeko; izan ere, ez nuen etxean lan egin gura. Askok kostatzen

"GUSTURA NAGO HELDUEKIN LAN EGITEN, ANTZERKIAN 23 URTEGAZ HASI NINTZELAKO"

zait etxean gidioak ikastea eta kontzentratzea. Baina Durangon ez da erraza diru sarrerarik barik horrelako espazio bat mantendu ahal izatea, eta gune baten bila hasi nintzen, eta zelan finantzatu pentsatzen. Toki egokia aurkitu, eta bertan klaseak ematea irten-bide ona izan zitekeela iruditu zitzaidan. Lekuaren baldintzatariko bat San Agustin kulturgunetik hur egotea zen. 30.000 biztanleko herri batean tailer xume bat sortzea eta mantentzea posible zela iruditu zitzaidan, zenba-

kiei dagokienez. Izan ere, argi nuen ez nuela antzerki eskola bat gura. Eskola batek ikasgaiak eta hainbat irakasle espezializatu behar ditu eta nire ideia hori baino xumeagoa da. Jendeak antzerkia zaletasun modura hartzea eta horretara hurbiltzea gura nuke, eta baten bati zerbait pizten bazaio, lagunduko diot beste zeozer topatzen bere gustuetara moldatuko dena.

Azken batean, sormen leku baten bila nabilen. Oreka bat topatu gura nuen kanpoko lanen eta nireen artean, eta Garrasik hori osatuko duela uste dut, aukera ematen dit-eta neure lanekin konpontzeko. Antzezle izatea da nire ideia, ez irakaslea, baina antzerki mundura lotuta jarraitzeko aukera ere bada hau. Nekagarriagoa da mundu bien artean ibili behar izatea. Sortzeko modu bat ere bada, azken finean, ikasturte amaierako lanak ere egin beharko baitituz taldeekin, eta, horretarako, sormena, idazketa eta zuzendaritza ere landuko ditut.

Eta zelan joan dira lehenengo urratsak?

Gunea egokitu eta gero, uztaileko lehenengo hamabostaldian udalekuak prestatu nituen. Bederatzi ume izan nituen eta gustura aritu ginen. Hasieran kostatu egin zitzaidan, baina oso esperientzia ona izan zen; ikasleak, familiak eta nik neuk oso pozik amaitu genuen. Irailean, berdin, sare sozialen bitartez eman dut, batez ere, Garrasiren berri. San Agustineko Arantza Arrazolagaz ere berba egin nuen bertan publizitatea uzteko. Laguntza handia eman dit hasieratik, eta oraindino lotu barik dugu arren ikasturte amaierako emanaldiak bertan egitea pentsatzen gabiltza. Durango handia izan arren, ez da hiri bat, eta informazioa nahiko erraz zabaltzen da herrian. Helduen talde bat dut martxan orain, eta gazteen hiru talde ere sortu ditut. Guztira, hogeita hamar bat ikasle ditut eta badakit jende gehiago ere gogotsu dagoena. Asterik aste hazten ari gara. Pozik nago, zenbakietara heltzen nabilelako.

"ESPAZIORAKO BALDINTZETARIKO BAT SAN AGUSTIN KULTURGUNETIK HUR EGOTEA ZEN"

Oso interesgarria egiten zait helduekin lan egitea, ni neu ere heldua nintzela hasi nintzelako antzerkia ikasten, 23 urtega. Gainera, helduak datozenean, gura dutelako datoz. Antzerki klase bat zer zen ere ez nekien. Uste nuen gidoi bat jaso eta hortik hasiko ginela lanean, baina ez, dinamika pilo bat dago, joko pilo bat... eta uste nuen, beraz, helduentzako ere interesgarria izango zela. Gazteen kasuan ere interesgarria izan zitekeen, baina argi diot ez dudala ludoteka bat zabaldu gura izan. 10 urtetik gorakoentzat dira saioak. Iruditzen zait adin horretatik gora umeek badakitela zer egin gura duten. Eta neure burua ere ez dut ikusten 6 urteko hamar ume kudeatzen gela batean. 10etik 14 urtera artekoak ditut orain, baina 15etik 17 urtera artekoak etortzea ere gustatuko litzaideke. **Zelako garrantzia du gazteen artean emozioak eta sentimenduak lantzeak?** Garrasi epairik bako leku bat dela azaltzen diet denei, batez ere helduei. Polita izango litzaiteke hemendik kanpora ere aske sentitzea, jakina, baina konplexuak hemendik kanpora utzi eta bertan jolasteko eta berriro ume izateko espazio bat topatzen badute nahikoa da niretzat. Umeek oso ondo egiten dute hori, adibidez. Norbere buruaz modu osasuntsu batean barre egitea asko egitea dela uste dut; lotsa kentzea, publikoan berba egiteko trukoak ematea... Horrelakoak ikasteko ere toki aproposa izan daiteke.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Urte eta erdiren ondoren, Eros obraren bira amaitzen ari gara; urtarrilean Durangon egon ginen eta asteburu bat geratzen zaigu Pabilioi 6 aretoan. Amaiera hori dugu buruan. Iñaki Ziarrustak zuzentzen duen Atx konpainiagaz ere ibili naiz lanean, *Marmarra* antzezlanagaz, eta hori ere amaitzen dabil. Aurreko asteburuan Ortzaitzen egon ginen, eta domeka honetan Oiartzunen egingo dugu emanaldia. Bilbon aurkeztuko duten proiektu batez ere banabil, datorren urterako. Eta, azkenik, hasieran aipatu dizudan lana, nik ekoitziko dudana bazarriketa; aurreratu dezaket ez dela umorezkoa izango. Hainbat fronte dut zabalik, baina gogorrena Garrasi da. Badirudi ezetz, baina urte amaiera bertan da eta ikasturte amaierako lanak prestatzeari ekingo diot orduan.

Arriola Jazz&Blues jaialdiak lau emanaldi izango ditu

MUSIKA Azaroko asteburu bitan egingo dute Arriolako XXXVI. Jazz & Blues jaialdia; lau emanaldi izango ditu, guztira; Giles Robson eta Jimmy Reiter Erresuma Batutik eta Alemaniatic etorriko dira, hurrenez hurren; lehenengo emanaldia azaroaren 14an da

A. M. ELORRIO

Elorrioko Arriola Jazz eta Blues jaialdiaren XXXVI. edizioa aurkeztu dute. Aurten lau emanaldik osatuko dute zikloa. Lehenengo asteburuan (azarok 14 eta 15) Iosu Izagirre (seikote formatuan) eta Giles Robson izango dira protagonistak. Izagirre ibilbide luzeko musikaria da eta denerik egin izan du: Iñaki Salvadorregaz lan egin du zineman, Mikel Laboagaz eta Betagarri taldeagaz musika arloan, eta oraintsu *Ilusio* lana (Errabal, 2025) kaleratu du. Giles Robsonen bluesera jotzen du gehiago, eta adituek munduko harmonika interpretatzailerik onenetarikotzat dute.

Jimmy Reiter gitarrista eta konpositorea Alemaniatic Elorriora etorriko da; Doug Jay eta Nemo Gonzalez, bluesaren artista handi bi, lankide izan ditu hamarkada bi baino gehiagotan, eta bere belaunaldiko blues artistarik esanguratsuenetarikoa dela erakutsi du urteotan.



Iosu Izagirre sextet.

Thrasha eta jazz

Arriolako jazz eta blues zikloa Satxa Soriazu pianistak amaituko du. Formakuntza klasikoa jaso arren, kurioa da Soriazu. Orain urte bi, Megadeth thrash taldearen *Rust in Peace* disko

ikonikoa jazz instrumentalera egokitu zuen, jazzaren lengoaia gaurkotuta. Alejandro Mingot gitarrista, Kike Arza kontrabaxista eta Dani Lizarraga izango ditu lagun taula gainean, azaroaren 28an.



'Akelarre: marearen kontra'. AKELARRE

'Akelarre: marearen kontra' dokumentala estreinatu dute

ZINEMA Bideografik ekoiztetxeak Lekeitioko Euskal Zine Bileran estreinatu du bere azken ikus-entzunezkoa

Aritz Maldonado DURANGO

Herrietako plazak bete eta gero, Akelarre taldeak Euskal Herriko zinema aretoak bete gura ditu orain. Hain zuzen ere, Durango Bideografik ekoiztetxeak *Akelarre: marearen kontra* dokumentala sortu du eta Lekeitioko Euskal Zine Bileran aurkeztu du asteburuan, zine jaialdiaren 48. edizioan. "Pozik gaude lanak izan duen harre-raz. Aretora senide, zale eta ikusle ugari batu zen", azaldu du Xabier Zabala Agirrezabala zuzendariak. Carlos Iglesias Serranogaz batera zuzendu du

lana. Proiektua orain hiru urte ipini zuten martxan, Akelarren amaiera borobiltzeko helburuagaz. Lanak EITBren lankidetzan ere izan du; batez ere, artxiboko materiala erraztu du.

Estreinaldia igarota, Bideografikoko lantaldeak herririk herriko emanaldien birari ekingo dio orain. Azaroan Aian, Gatican, Laudion edo Berrobin egingo dituzte emanaldiak, besteak beste. Abenduan beste dozena bat emanaldi dituzte; bat Abadiñon, abenduaren 3an. Zine jaialdietan ere parte hartzeak dira.



GAI LIBREAN

AINHOA OLASO SOPELANA BEHARGINA

Saudade

Eskailerak jaisten hasi eta urriaren amaierara heltzen da hemen bat. Hilabeteak asteke egunak balira, ez dakit urria zer litzatekeen. Astearte? Baina seguru durangarron pertzepzioa munduarenarekin erabat deskoordinatuta joango litzatekeela. Dena delakoagatik.

Hala ere, egunotako beroak udazkena bera ere ezustean atzeman du. Kolorez aldatzen hasi dira basoak, eta zeruko urdinari begira harrapatu gaituenez denok, are gorriago egotearen itxura hartu diegu.

Duela ez hainbeste, mugikorra praktetako atzeko poltsikoan generamala, samba doinuak aireratzten genituen Lisboako galtzada-harri (*adokinhoak* lagunentzat) berotan. Arratsalde laburragoak bazetozela jakinda, "*saudade*" hitz itzulezinaz berbetan luzatu ginen gaueko ordu txikitik: berogailurik gabeko pisuek, errepietan zanpatutako autoek, igandeez, eta batez ere, horren txikiak izanda ere, egiten

"HILABETEA ASTEKO EGUNAK BALIRA, EZ DAKIT URRIA ZER LITZATEKEEN. ASTEARTEA?"

ditugun ahalegin guztiez. Orduan, oroimenak, edo hobe, beldurrak sortutako malenkolia goiztiarra SuperBock batzuekin nahastu genuen. Dena datorrelako nahastuta bizitza honetan. Eta hiriko gargolek irribarre egin ziguten.

Udazkena heldu da eta Plateruena txosnagunetik begiratu dugu beste behin sentimenduen nahasketa portugaldarrarekin, galera, falta, distantzia, dolu eta maitasunetik. Durangoko Azoka ere iritsiko da eta normalitatea performatuz Ahotseneara joango gara. Eta agian, edozein plazer lasaigarri egingo zaigu. Disimulatu arren, Durangon dekadentzia ari baitu, birrindutako higiezin eta espekulazioarekin.

Eta Nafarroara bidean diren sei hartzek nola, agian guk ere pasarela klimatiko bat beharko dugu hibernazioan murgiltzeko. Galduz gero, abisatu, zure bila joango gara eta.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 24

ABADIÑO Urteurrena
Abadiñoako Gaztetxearen urteurrena. Kontzertu akustikoa: Berun. *Gaztetxean, 21:00etan.*

ABADIÑO Drag Bingoa
Albina Stardust eta Divina Comedia. *Zelaietako Jubilatuen tabernan, 19:00etan.*

ABADIÑO Erakusketa
'Naturari so' Durangaldeko Artisten Elkarteko talde erakusketa. *Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra arte.*

BERRIZ Erakusketa
Andikoa auzoko argazki zaharrak. *Kultur Etxean, urriaren 26ra arte.*

DURANGO Erakusketa
Aratz Azpiriren lanak. *Ezkurdi aretoan, urriaren 26ra arte.*

DURANGO Erakusketa
'Andra Mariko elizpea. Durangoko bihotza'. Europako Ondare Jardunaldiak. *Arte eta Historia Museoa, azaroaren 16ra arte.*

DURANGO Erakusketa
'Goren Sakona' (Ros Boisier). *Arte eta Historia museoa, azaroaren 16ra arte.*

ELORRIO Erakusketa
Eskulturak Elorrioko Kaleetan. *Iturri kultur etxean, abendura arte.*

IURRETA Ipuinak
'Lotaldia'. Ipuin kontaketa eta kontzertua (Peru Magdalena eta Ibonrg). *Herri bibliotekan, 18:00etan.*

MALLABIA Urriko Jaiak
Buruhandiak, 16:30ean eskolatik. Herri kirolak ume eta gazteentzat, 17:00etan. Elizpeko pilota txapelketa, 18:15ean. Txupinazoa udaletxetik, 18.00etan. IV. Kick Boxing boxeo gaua: Euskadi vs Portugal, frontoian (18:30-21:30). Zutik elektrotxaranga, 19:00etan. Hanburgesa pintxoak, 20:30ean. 'Inork begiratzen ez duenean' dantza ikuskizuna, 21:30ean, parkeko aterpean. Beranduegi + Dj Marrazo. *Parkean, 22:00etan.*

ZAPATUA 25

ABADIÑO Urteurrena
Abadiñoako Gaztetxearen urteurrena. Bizikleta martxa, 10:30ean. Artisautza azoka, 11:00etan. Bazkaria, 15:00etan. Gero, karropoteoa. Uda + Zeker + Mutiko, 20:00etan. *Gaztetxean.*

BERRIZ Bigarren eskuko azoka
Berriztu azoka. Amaia Basterrikak murala margotuko du eta Angel Etxebestek kontzertua emango du, 13:00etan. *Probalekuan (10:00-14:30).*

BERRIZ Ipuinak
'Mariaje Potaje eta Erramun Babarrun' (Ixabel Agirresarobe). *Kultur Etxean, 12:15ean.*

BERRIZ Dantza
'Xpectro' (Zen del Sur konpainia). *Kultur Etxean, 19:00etan.*

DURANGO Kontzertua
Durango Txistu Kontzertua 2025. 30. Urteurrena (Silboberri Elkartea). *Landako Gunean, 20:00etan.*

ELORRIO Lehiaketa
XXXV. Errebonbillo Aire Libreko Margo Lehiaketa. (Izen ematea: 09:00-10:00). Sari ematea, 17:00etan. *Iturri kultur etxean, 09:00etan.*

GARAI Erakusketa
'Biribilak mendietan. Seles, kortak, saroiak'. *Elizabarrin, urriaren 25 eta 26an.*

MALLABIA Urriko Jaiak
Frontenis maratonia, 09:00etan. II. Duatloi txikia, 11:30ean. Mallabiko VIII. Ardo Feria, probalekuan (12:00-15:00). Herri bazkaria, 14:30ean, frontoian. Txiki-txef, plazan (16:00-19:00). DJ Dantzatzeko prest, plazan (17:00-18:30). Rockalean elektrotxaranga, 19:00etan. Gozategi + Mirua + Malakias. *Plazan, 22:30ean.*

OTXANDIO Bisita gidatua
'Plaza Nagusiaren arkitekturak'. Udalak eta Gerediagak antolatuta, Europako Ondare Jardunaldien



MERCAT DANCE

DURANGALDEA Dantza
Mercat Dance konpainiak *Averno* lana aurkeztuko du, Danteren *Infernua* erreferente duen lana. Lorca Sarietan hainbat sari jaso du. *Urriaren 24an, barikua, Arriola antzokian, 20:00etan. Urriaren 25ean, zapatua, Zornotza Aretoa, 20:00etan. Urriaren 26an, domeka, San Agustin kulturgunean, 19:00etan.*

barruan. Informazioa: 94 681 80 66 / ejardunaldiak@gmail.com. *Plazan (11:00-12:30).*

ZORNOTZA Bisita gidatua
'Amorebieta-Etxanoko arkitektura garaikidea (1868-2020)'. Europako Ondare Jardunaldien barruan. Izen ematea Zelaieta zentroan (94 630 06 50 / zelaieta@amorebieta.eus). *Zelaieta zentroan (10:30-12:30).*

DOMEKA 26

DURANGO Mendi martxa
Durangoko II. Mendi Martxa. (Izena emateko, www.kirolprobak.com). Alpino Tabirak antolatuta. *Landako Gunean, 08:00etan (luzea) eta 09:00etan (laburra).*

DURANGO Umeen Euskal Jaia
56. Umeen Euskal Jaia. Dantzarien kalejira. Ondoren, alardea Ezkurdi plazan (euria bada, Landako Gunean). Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeek antolatuta. *Landako Gunean, 12:00etan.*

DURANGO Garbiketa
Mañaria ibaiaren garbiketa. *Pinondo parkean, 10:00etan.*

ELORRIO Umeentzako antzerkia
'Tá' (Escena Miriñaque konpainia). *Arriola antzokian, 17:00etan.*

ELORRIO Bisita gidatua
'Kaletarra: etxea eraikiz, herria eraiki'. Europako Ondare Jardunaldien

barruan. Udalak eta Turismo Bulegoak antolatuta bisita gidatua, gaztelaniaz. (Izen ematea: 94 682 01 64 / 688 776 270 / turismoa@elorrrio.eus). *Turismo Bulegoan (11:00-12:30).*

MALLABIA Urriko Jaiak
Frontenis maratonia, 09:00etan. IV. Autoen Slaloma, Goitondo Beheko Lau industrialdean (10:00-14:00). Txoborro Magoa, 16:30ean, probalekuan. Gero, txokolatada. Mus txapelketa, 17:00etan. *Kontzejuzarreen.*

ZALDIBAR Berbaldi musikatua
'Ama samur orék magalpetu gaizuz'. Udalak eta Gerediagak antolatuta, Europako Ondare Jardunaldien barruan. (Informazioa: 94 681 80 66 / ejardunaldiak@gmail.com). *Ospitalaren aurrean (11:30-12:30).*

ASTELEHENA 27

MALLABIA Tailerra
'Maitasunaz eta heriotzaz. Haur eta Gazteekin nola hitz egin heriotzaz' (Hizlaria: Naroa Martinez). *Kontzejuzarreen, 17:30ean.*

MARTITZENA 28

DURANGO Berbaldia
'Entendiendo y acompañando el duelo perinatal y neonatal' (Hizlaria: Esku Hutsik elkarte) *Otamotzena auzogunean, 18:00etan.*

ZINEMA

ABADIÑO
TXANPORTA KULTUR ETXEA
Jone, batzuetan
Domeka 26: 18:00.

BERRIZ
KULTUR ETXEA
Los tipos malos 2
Domeka 26: 17:00.
Sutemose
Eguaztena 29: 18:30.

DURANGO
ZUGAZA ZINEMA
Los domingos
Barikua 24: 18:00, 20:30.
Zapatua 25: 19:00, 21:30.
Domeka 26: 19:30.
Astelehena 27: 17:45, 20:15.
Martitzena 28: 17:45, 20:15.
Eguaztena 29: 19:00.

Black Phone 2
Barikua 24: 18:00, 20:30.
Zapatua 25: 16:45, 19:00, 21:30.
Domeka 26: 17:00, 19:30.
Astelehena 27: 17:45, 20:15.
Martitzena 28: 17:45, 20:15.
Eguaztena 29: 19:00.

La cena
Barikua 24: 18:00, 20:30.
Zapatua 25: 17:30, 19:30, 21:30.
Domeka 26: 17:00, 19:30.
Astelehena 27: 18:00, 20:15.
Martitzena 28: 18:00, 20:15.

Tom y Jerry. Aventura en el tiempo
Zapatua 25: 16:45.
Domeka 26: 17:00.

Tosca (Opera)
Eguaztena 29: 19:00.

ELORRIO
ARRIOLA ANTZOKIA
Karmele
Zapatua 25: 20:00.
Domeka 26: 20:00.
Astelehena 27: 20:00.

ZORNOTZA
ZORNOTZA ARETOA
Maspalomas
Barikua 24: 20:00.
Domeka 26: 20:00.
Astelehena 27: 20:15.
Hartz-atzapar kanpamentua
Domeka 26: 17:00.

EGUAZTENA 29

ZORNOTZA Aurkezpena
'Rosa Parks' liburuaren aurkezpen musikatua (Amaia Astobiza). *Txiri Txiri tabernan, 19:30ean.*

EGUENA 30

ABADIÑO Kontzertua
Lionels. *Amarau Arte Fabrikan, 19:30ean.*

DURANGO Berbaldia
'Durangoko elizpeko istorioak eta batailak'. (Hizlaria: Oier Bizkarra arkitektoa). *Arte eta Historia Museoa, 19:00etan.*



Korrikalariak helmugara heltzen, iazko aldian. LUCIA MERUELO

Aldapegora lasterketa, Kopari amaiera emateko

MENDI LASTERKETA Zapatuan Elorrioren lehiatuko den Aldapegora mendi lasterketaz amaituko da Durangaldeko Koparen lehenengo aldia. Proba luzea eta laburra kontuan hartuta, 500 korrikalaritik gora abiatuko dira Elorrioko plazatik garaipenaren bila

Joseba Derteano ELORRIO

Elorrioko Erdella mendi taldeak antolatuta, Aldapegora mendi lasterketak hirugarren aldia beteko du zapatuan. Orain arteko jendetsuena izango da. Lasterketa laburra eta luzea kontuan hartuta, 500 korrikala-

ritik gora batuko dira Elorrioko plazan, inoiz baino gehiago.

Durangaldeko Koparen amaiera ere izango da. Maiatzean hasi zen, Mallabiko 7 Pagogaz. Ondoren, Berrizko Amaraune, Zaldibarko Zaldutail, Garaiko Asto Trail, Mañaritik Atxetara,

Atxondoko Sorginen Lasterketa eta Zornotzako Aramotz etorri ziren, Elorrioko azken hitzordua heldu arte. Antolatzaileek sarritan goraipatu dituzte ekimen berriaren onurak, eta Aldapegorako ere iritzi berdina dute. "Ikusmina eragin du

eta formatu erakargarria dela uste dut", adierazi du Txaber San Pedrok.

Barikuan umeen probak

Aurreko egunean, barikuan, umeentzako lasterketak egongo dira, zaletasuna bultzatzeko. Distantzia bi daude aukeran: bost kilometrokoa eta kilometro batekoa. Laburra herrigunetik da eta luzean plazatik Mendrakaraino joango dira gaztetxoak. Dagoeneko 70 umetik gora daude izena emanda. Izen ematea egunean bertan ere egin daiteke, 16:30ean.

Zapatuan lasterketa bi

Zapatuko lasterketa luzea 09:15ean hasiko da, Elorrioko plazan. Korrikalariak 26 kilometro eta 1.700 metroko desnibel positiboa dituen ibilbideari aurre egingo diote. Elorrio inguruko tontorrik esanguratsuenak igaroko dituzte. Proba laburra 10:00etan hasiko da (15 km). Erdella (682 metro) eta Intxorta (743 metro) izango dira probako punturik garaienak.

Goizean zehar, Elorrio Rugby Taldekoek karpa bat ipiniko dute plazan, eta jan-edanerako aukera eskainiko dute, iaz egin zuten moduan.

Korrikalariei ematen zaien poltsan, dortsalaz gainera herriko ekoizleen produktuak ere egongo dira, hala nola Belazeko jogurta, Delikatetxeko salda eta Joseba Solozabalaren palmerak.

Kopako podiuma zapaltzeko azken aukera

MENDI LASTERKETA Kopa lehiatzen dabilzan korrikalarien arteko borroka estua itxaroten da

Aldapegorak Durangaldeko Koparako puntuak batzeko azken aukera eskainiko du. Gizonetan irabazlea erabakita dago: Irazu Aranburuk jantzik du irabazlearen elastikoa podiumean. 60 puntuko aldea ateratzen dio Ander Jauregi durangarrari. Emakumeetan kontuak estuago daude. Leire Uribe liderrak 10 puntuko aldea ateratzen dio Itsasne Urkiaga bigarren sailkatuari, eta Lola Oyarzabal, hirugarrena, 20 puntura dago. Laugarren tokiari, 30 puntura, Nora Narbaizak ere badu Kopa irabazteko aukera. Lau korrikalari hauen artean dago azken irabazlea.



Irazu Aranburu mallabitarra.

Durangaldeko Bizikleta Eskolako umeen taldeak aurkeztu dituzte

TXIRRINDULARITZA 2014an hasitako proiektuak osasuntsu jarraitzen du. Benjamin, kimu eta haur kategoriako taldeak izan ziren Traña-Matienako kultur etxeko aurkezpenean

J.D. DURANGALDEA

Durangaldeko Bizikleta Eskolako benjamin, kimu eta haur kategoriako taldeak aurkeztu zituzten, martitzenean, Traña-Matienako Errota kultur etxean. Kadete eta junior mailako taldeak ere kontuan hartuta, 112 ziklista batu ziren. Proiektuko arduradunek umeak "hezten" eta "zaletasuna sortzen" lan egiten jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten.



Durangaldeko Bizikleta Eskolako umeak, Errota kultur etxeko aurkezpenean.

Alpinoren mendi martxak bigarren aldia beteko du domeka honetan

MENDI MARTXA Landako Gunean hasi eta amaituko dira ibilbide biak. Amaieran opariak eta jan-edana egongo dira

J.D. DURANGO

Alpino Tabira mendi klubak Durangoko mendi martxaren bigarren aldia antolatu du domeka honetarako. Ibilbide bi daude, 25 eta 15 kilometroko bana. Biak Landako Gunean hasiko dira, 08:00etan eta 09:00etan, hurrenez hurren. Ibilbidean zehar eskualdeko hainbat toki eta tontor esanguratsu igaroko dute (Obako Atxa, Mugarrikolanda, Marmol...). Kasu bietan, Landako Gunera heltzen direnean opariak banatuko dituzte eta jan-edana eskainiko dute.



Iazko aldiko une bat. JOXE AMANTEGI

Elorrioko ziklo-krosak 800 ziklista batuko ditu

TXIRRINDULARITZA Elorrioko ziklo-krosak 48. aldia beteko du asteburuan. Zapatuan ume kategoriakoen lasterketak izango dira San Joseko landetan, eta domekan nagusien txanda izango da. Domekan Basilio Azkarate gogoratu eta omenduko dute

J.D. ELORRIO

Elorrioko ziklo-krosak 48. aldia beteko du asteburuan. Bizkaiko lasterketarik beteranoenetarikoan 800 bat parte hartzaile itxaroten dira, haurretatik hasi eta master kategorietaraino. Aurten ere Bizkaiko Koparako puntuagarria izango da.

Zapatu arratsaldean ume mailako lasterketak izango dira; 15:30ean benjaminena, 16:00etan kimu mailakoa, eta 17:00etan haur kategoriakoa. Domekan nagusien txanda izango da. Kadete, junior, elite zein master mailako txirrindulariak lehiatuko dira San Joseko landetako ibilbide klasikoan. Emakumeen elite mailako lasterketa 11:30ean hasiko da, eta gizonena 12:30ean.

Basilio Azkarate gogoratzu

Domekan, 11:30 inguruan, Basilio Azkarateri omenaldia egingo diote, urte luzez Elorrioko eta Durangaldeko txirrindularitza-



Ekimeneko antolatzaileak eta udal ordezkariak, martitzeneko aurkezpenean.

ren alde lan egin zuen pertsonari. Bixente Beitia abeslariak, Xabi Puia dantzariak eta Gari-koitx Mendizabal txistulariak parte hartuko dute. "Basilioren ekarpena ezin da neurtu; urte luzez lan egin zuen ziklo-krosa

bizirik mantentzeko. Omenaldia bihotzez eskainitakoa izango da," adierazi du Zugaitz Ayuso antolakuntzako ordezkariak.

Aurten ere San Jose inguruan txosna ipini, eta jan-edana eskainiko dute.



Hainbat derbi ikusi ahaliko dira Eleizalden. OIER DARRETXE

Genuine ligako euskal taldeen topaketa antolatu dute Elorrion

FUTBOLA Eleizalde zelaiak Athletic, Real, Osasuna, Alaves eta Eibar taldeen arteko derbiak hartuko ditu

J.D. ELORRIO

Asteburua derbiz beterik dator Elorrion. Eleizalde futbol zelaiak Euskal Genuine Taldeen II. Topaketa hartuko du domekan, Elorrio futbol klubak udalaren laguntzagaz bultzaturiko ekimenean.

Ligan dabiltzan bost euskal taldeak batuko dira Elorrion: Deportivo Alavés Fundazioa, Athletic Club Fundazioa, SD Eibar Fundazioa, Real Sociedad Fundazioa eta CA Osasuna Fundazioa. Guztira, 10 derbi jokatuko dira 10:45etik aurrera, zelai bitan banatuta. Esaterako,

Athleticen eta Realaren artekoa 12:45ean hasiko da.

Izaera ez lehiakorra

Asteburuko topaketak izaera ez-lehiakorra du, eta, beraz, ez da sailkapenik ez puntuaziorik egongo. Jardunaldiaren helburu nagusia gizarte- eta kirol-inklusioa zein parte hartzaileen arteko elkarbizitza sustatzea da, aukera-berdintasuna eta talde lana bultzatuta. "Ekimenak klubaren arteko loturak sendotzea bilatzen du", ekimeneko antolatzaileek ohar batean azaldu dutenez.



JOKALDIA

AITOR ARABIOURRUTIA OBREGON TRINKETA

Kepa Arroitauregi memoriala

Beste urte batez Kepa Arroitauregi memorialaren amaierara heltzen gabiltza. Aurtengoa VI. ekitaldia izaten ari da eta pixkanaka-pixkanaka Hegoaldeko trinket zirkuituan egonkortzen ari den txapelketa dela esan dezakegu.

Gaur bigarren finalaurrekoak jokatuko dira eta hurrengoko barikuan, urriaren 31n, final handiak. Hemendik, finaletara joateko gonbidapena egiten dizuegu.

Paleta gomazko txapelketa azken urteetako onenetarikoa izaten ari da, bikote mistoek berezitasun puntu bat ematen diete norgeiagokei eta kontraste politikak ikusten dira jokoan. Halaber, set-en sistemetara jokatzeak emozioa areagotu egiten du eta parekotasunari laguntzen dio. Oraingoz, faboritoak ziren bikoteak kanpoan geratu dira eta ikusi behar zeintzuk heltzen diren finaletara.

"BIKOTE MISTOEK BEREZITASUN PUNTU BAT EMATEN DIETE PARTIDUEI, ETA KONTRASTE POLITAK IKUSTEN ARI GARA"

"ESKUZKO FINALEAN DURANGALDEKO PILOTARI BAT IZATEAR GARA, GORAKA EGITEN ARI DEN IBAI ARROITAJAUREGI"

Eskuzko modalitatean, arazo gehiagorekin gabiltza antolakuntzakook. Nahiz eta pilotariak denboraldia hasi besterik ez duten egin, ugariak dira jokatzen ari diren txapelketa zein partidua, eta denetara heltzea ezinezkoa da. Partidu kopuru handi hauek, gainera, eskuetako arazoak ekartzen dituzte, eta Keparen omenekoa eskuz banakako jokamoldean jokatzen dela kontuan izanik, eskuak ondo edukitzea berebizikoa da. Hala ere, arazo hauei guztiei aurre eginez, finalean Durangaldeko pilotari bat izatear gaude, hain zuzen ere azken denboraldian goraka nabarmen egiten ari den Ibai Arroitauregi iurretarra. Finalerako azken urratsa emateko partidua gaur izango du, 18:00etan, Nafarroatik datorren Gaizka Okarizen aurka. Bien bitartean, zain da finalean Jon Jara hernaniarra.

Zorte on denoi eta onenak irabaz dezala!

KOMIKIA
 UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

URRIAK 24, BARIKUA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
URRIAK 25, ZAPATUA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 26, DOMEKA
09:00-09:00
Irigoién, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 27, ASTELEHENA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 28, MARTITZENA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 29, EGUAZTENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 30, EGUNA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduraz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
 22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Anir
 Gure etxeko txapeldunak 4 urte egin ditu. Segi beti bezain alai. Maite zaitugu!



Aitziber
 Zorionak etxeko erreginari! Ondo pasa etxekoan partez, 57 muxu handi!



Elene Granados Marchal
 Urriaren 24an **Elene Granados Marchal**ek bere lehenengo urtebetetzea egingo du. Oso zoriontsua izan zaitezela!

GOZATU GOZOTEGIA
 Ermodo, 11 DURANGO
 Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
 ☎ 661 40 14 00
 f Gozatu Gozotegia
 @ gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Zuhaitz (1037.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
 Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/ zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
 Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
 Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
 Etorri zaitetz Anbotoren ordezkariatzara edo deitu 946 232 523 telefonora.



Andoni eta Xabier
 Andoni eta Xabier Sarrionandiak, Matienako bikote onenak, 13 urte egingo dituzte urriaren 24an. Zorionak txapeldunak, horrela jarraitu!

DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
 LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
 Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

GIZA BIBLIOTEKA
 URRIAK 24 BIBLIOTEKAREN EGUNA
 Giza Biblioteka gizarte-kohesioa pertsonen arteko elkarriketaren bidez sustatzen duen ekimena da. Hainbat jatorritako herritarrek beren bizipenak partekatzen dituzte entzuleekin egindako elkarriketa laburretan. Ekimenak aurreritziak haustea eta elkar uertzeako espazio seguru bat sortzea du helburu.

URRIAK 30
18:00
IZEN-EMATEA ALDEZ AURRETIK
Iurreta
 Elizateko Udala
 HERRI BIBLIOTEKA

Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu Anbotoko
whatsapp kanalera



**Eskaneatu
QR kodea**

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak





LAU-HORTZA

JASONE AGIRRE
GARITAONANDIA

Klonk-klonk

Maite ditut izotz kubotxoak; ez galdetu zergatik, ez dakit-ta. Akaso izan liteke oparotasunarekin lotzen ditudalako. Lehen, etxeko izozkailuan egindako txiki, urtzeko errazekin konformatu behar, eta orain, aurrerapenekin, poltsetan datozen horiek, handiak, mardulak, botatzerakoan "klonk" egin, eta astiro-astiro urtzen direnak, horiek ditut gogokoen. Udako zirkunstantziak direla eta, hiru poltsakada pilatu zaizkit etxean. Zoriontsua naiz.

Eta beharbada, justu horregatik, momentu zoriontsuak ekarzen dizkidatelako gogora, hainbeste maite ditut izotzok. Zapatu eguerdietan etxean hartutako bermutengatik, Argentinako lagunak ardoari botatzeko duten atrebentziagatik, edota "Blanco Paris" dotorea zer zen erakutsi zidan lagunarengatik maite ditut beharbada.

Delirio burgesekin hasten naitzen, esaterako, inoiz aberatsa banintz eta tamaina egokiko etxea banu, kapritxo modura, izotza egiteko makina erosiko nukeela amestu izan dut. Poztasun zatitxoak botaka, tarte-tarteka, klonk-klonk doinua... Zoriontasunaren artefaktua.

Baina agian apur bat bizitza bezalakoak direlako maite ditut izotzok. Jostagarriak, pozgarriak direlako hasieran, zoriontasun emaile, baina apurka-apurka, eta isil-isilik, urtzen direlako guztiz desagertu arte...

AKUILUA

"Ardi moztailea izateko ekina izan behar da"

ZORION ABENDIBAR ETA ARITZ ABENDIBAR ARDI-ILE MOZTAILEAK

Mallabiko aita-semeek Zugarramurdiko Speed Shear festan eta Abadiñon egin zen Euskal Herriko ardi-ile mozketaren txapelketan parte hartu dute aurten

Aitziber Basauri MALLABIA

Zorion Abendibar Madariagak (1973, Mallabia) mutikotan ikasi zuen ardi mozten, aitatagaz. Eta Aritz Abendibar Maiztegi (2008, Mallabia) aitarengandik jaso zituen ezagutza eta zaletasuna. Ardi moztea afizio dute biek, ofizio baino gehiago. Zorion kamioilari lanetan dabil, eta Aritz basoa eta natura-ingurunea kudeatzeko ikasketak egiten. 10 ardiko artalde dute Berrizen. **Odolean daroazue ardi-moztearen zaletasuna.**

Zorion Abendibar: Aitita auzoko 3-4 baserritarra joaten zen ardi mozten, eta beragaz joaten nintzen; 11 urte izango nituen. Ardi moztearen bueltan sortzen zen giroa akorduan dut oraindino. Pena handia ematen dit hori galtzeak. Beharrak amaituta, mahai bueltan elkartzen ziren artzainak, sasoi bateko istorioak kontatzeko eta bazkaltzeko: bildotsa, gatzatua, gazta... Klaudio Lejarretak ere eroaten ninduen Oletara, ardi moztera. Gazta egiten zuen bitartean Juan Bilbaok kontaturiko istorioak pozarren entzuten nituen. Iluntzean joaten nintzen berarengana umetan, eskolako lanak amaiturikoan.



Zorion Abendibar eta Aritz Abendibar.

"EUSKAL HERRIKO ARDI MOZTE TXAPELKETA IKASTEKO AUKERA HANDIA IZAN ZEN"

Aritz Abendibar: Aitak erakutsi dit niri. Ander Jaiok ere bai. Haren baserrira joan nintzen behin ardi mozten laguntzera, Iurretara, eta gustua hartu nion. Harrezkero nabil ardi mozten, duela 3-4 urtetik hona.

Ofizio baino gehiago, afizioa duzue ardi moztea.

A.A.: Bai, zaletasuna da gurea. Ez gara profesionalak.

Z.A.: Lagunartean ibiltzen gara ardi mozten, udaberrietik udara bitartean, hiru-lau baserritan. Kuadrillan bazkaldu eta kontu kontari ibiltzen gara. Ardi moztearen inguruan sorturiko giroa asko gustatzen zait. Euskal Herriko Lehen Ardi Mozte Txapelketan Abadiñoko probalekua bete egin zen eta ikusleak ahozabalik zeuden. Galestik, Eskoziatik, Ingalaterratik... etorri ziren ardi

moztaileak, eta elkar animatzen zuten.

Zelako esperientzia izan zen profesionalekin lehiatzea?

Z.A.: Oso lasai joan ginen. Gure lana egitera eta disfrutatzen joan ginen, lehiatzen barik.

A.A.: Beharrean 20-30 urte daramatzen moztaileak egon ziren Abadiñon. Ondo ezagutzen dute ofizioa. Ikasteko aukera handia izan zen. Oso gustura eta lasai aritu nintzen.

Artaziekin aritu zineten. Makinagaz baino gaxtagoa da?

A.A.: Makinagaz errazagoa eta arinagoa da ardi moztea. Homogeneoago geratzen da.

Z.A.: Tradizioz artaziekin egin izan da ardi moztea. Bada, ardi moztaileen euskal selekzioak ofizialtasuna lortuta ere, beti argi izan du ez zuela artaziekin egindako ardi moztea baztertuko. Garai batean ardi moztea zelan egiten zen ikusteko eta ezagutzeko modua da. Abadiñon 20 bat ardi moztaile lehiatu ginen modalitate horretan. Aurretik, Zugarramurdin izan ginen.

Esanekoak izaten dira ardiak?

A.A.: Esanekoak dira, bai. Bat edo bi izaten dira burugogorragoak... Natura gustatuz gero lan ona da ardi moztaileena, berezia. Eta kirola egiten duzu.

Z.A.: Gainera, ardi moztea amaitzean eskuak leun-leun geratzen dira. Ez da lan gogorra, ekina izatea behar da. Naturaren parte sentitzen zara.

Aritz, harri jasotzen ere hasi zara. Bazu erreferenterik?

A.A.: Probatu nuen eta ezin utzi! Zelaitarrekin nabil. Asko egon dira onak: Zelai, Ostolaza, Perurena, Izeta, Goenatxo... Horien maila lortzeko urte asko behar da, konstantea izan behar da.

PABILIOIA SALGAI
lurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

